



G2020 Gipuzkoa 2020 Hausnarketa estrategikoaren prozesua

Erronkako minieszenategien azalpena

2002ko urria



Aurkibidea

Aurkibidea	1
Giza Kapitala Erronkaren Minieszenategiak	2
Lurraldea " "	14
Gobernatzea " "	29
Gizarte Zibila " "	44
Produkzio Sistema " "	60



Sarrera

GIPUZKOA 2020 (G2020) sistemaren eszenategiak egiteko orduan erreferentzia metodologikotzat Europako Batasuneko Prospektibako Zelulak, *Europa 2010* izenekoak, egindako ariketa hartu dugu.

Arakatzeko eszenategi batzuk planteatzen dira, non etorkizuneko irudi ezberdinak errepresentatuko diren, baina horietan parte hartu gabe, eta egon daitezkeen etorkizunak (futuribiliak) mahai gainean jarriko diren.

Lanak bi zati ditu eta, orain eta hemen, lan horren lehen zatia emaitzak aurkezten ditugu. Hor mikroeszenategiak edo eszenategi partzialak definitzen ditugu GIPUZKOA 2020 analisi sistemaren barruan identifikatutako alor edo erronketako bakoitzerako bat.

- Giza kapitala
- Lurraldea
- Gobernamendua
- Gizarte zibila
- Ekoizpen sistema

Mikroeszenategi edo eszenategi partzialak egiteko, bost lan talde eratu dira, alor edo erronka bakoitzeko bat. Talde horietan koordinatzailea, idazkaritza teknikoa eta 12-15 kide egongo dira, aztertutako alorrarekin zerikusi dutenak eta mikroeszenategiak egiteko ardura izan dutenak. Mikroeszenategi horiek ondoko prozesu metodologikoaren arabera egin dira:

- Aldagaien zerrenda
- Aldagairik garrantzitsuenak eta bilakaera hipotesiak hautatzea.
- Mikroeszenategiak hautatzea
- Mikroeszenategiak idaztea.

Hemen aurkezten dizuegun dokumentuan hautatutako alor edo erronka bakoitzerako egindako mikroeszenategiak azaltzen dira.

Mikroeszenategi horiek 2020. urteari begira Gipuzkoako eszenario globalak egiteko abiapuntu dira.



Giza Kapitala erronkaren minieszenategiak

Koordinatzaile-Idazlea: Javier Retegi



ERRONKARAKO MINIESZENATEGIEN AZALPENA: GIZA KAPITALA

0.- Sarrera.

Tradiziozko bizimoduan eta antolaketa-moduan (demografia, heziketa mailak, familiaren kontzeptuak, osasuna eta bizi-itxaropena, migrazio-mugimenduak, emakumeak lanean gizonetzkoen parean jartzea, organizazioetako aginte-harremanak eta parte-hartzea eta abar) eraldaketa handiak gertatzen ari diren gizarte batean, aldaketaz kontzientzia handiagoa edo txikiagoa izatea eta, egoera berrietara organizazioen egiturak moldatuz, egokitzeko abiadura dira garapen sozio-ekonomikoaren eta etorkizunean jazoko denaren giltzak.

Esaten dutenez, aldatzeko zailenak izaten diren egiturak mentalak dira eta, orokorrean, aldaketari aurre egiteko berezko joera egon ohi da; horrela bada, dagoeneko zaharkituegi dauden egiturei eutsi nahi izaten zaie, harik eta iraunaraztea erabat ezinezko izateak birmoldaketarako prozesu traumatikoak ekarri arte.

Eszenategiak deskribatzeko orduan bi alderdi hauek hartu ditugu kontuan:

- Egitura aldatu beharraren aurrean dauden jarrera kolektiboak.
- Gakoak diren faktoreak aldatzeko hipotesia.

Kontzeptu horien arabera, bakoitzak hipotesi bati erantzuten diolarik, lau mikroeszenategi azalduko ditugu jarraian:

1. mikroeszenategia – Egituren egonkortasuna.- (Sistemaren egokitzapenik eza. Gipuzkoako hezkuntza-sistemaren krisia).

Barneko tentsioek eta gizartean gutxienezko adostasun bat ez egoteak kolektibo jakin batzuetan eragina izan dezakeen edozein aldaketa egitea eragozten dute.



2. mikroeszenategia – Aldaketara egokitzea.- (Gizarte-beharren bilakaerara giza kapitala eta hezkuntza-sistema egokitzea).

Egituren aldaketak gizartean izaten diren aldaketen ondorioz gertatzen dira eta atzeratu samar izaten dira. Azken emaitza birmoldaketaren ondoriozko trauma handirik ez egotea da; hala ere, giza kapitalaren egokitzapenik eza eta garapen onik eza izaten da horren ordaina.

3. mikroeszenategia – Heziketaren lidergoa.- (Bizitza guztian egiteko prestakuntzaren lidergoaren alde egitea. Heziketa Gipuzkoako adierazgarri).

Hezkuntzaren eskaintza argi eta garbi aurretik doa eta, estamentu kolektibo gisa, barruko aldaketa sakonei ekiten die gizarte berriaren premiei erantzun ahal izateko. Horrela, hezkuntzaren eskaintza Gipuzkoako ikur bereizgarri bihurtzen da, barruko eta kanpoko eskaerari erantzuna emanez.

Ikastegiaren arteko harreman-modu berriak sortzen dira, isolaturik egoteko joera apurtuz, gizarte-beharrei denek batera aurre egiteko.

4. mikroeszenategia – Lidergo zientifiko-teknikoa.- (Lidergoa garapen zientifiko-teknikoan. Gipuzkoa gizarte aurreratua).

Gipuzkoak alde aurretik aurre egiten die bere desorekei, egiturak aldatuz eta gizarte aurreratu, justu eta solidario baten garapenerako baldintzak sortuz. Garapen zientifiko-teknikoaren alde egiten da garapen sozio-ekonomikoaren motore izan dadin. Giza kapitalaren heziketa aurreratuak balio estrategikoa hartzen du horrela.

Gizartearen beharrei buruz hausnarketa elkarrekin egiteko organoak sortzen dira eta lidergo erkidean jardutea ahalbide dezaten oinarrizko adostasunak bilatzen dira.



1.- Egituren egonkortasuna - (1. mikroeszenategia).

Gipuzkoak badu nolabaiteko ongizatea abiapuntu, behin industrien birmoldaketak eginda eta langabezia-tasa gero eta txikiagoa izanik; izan ere, langabezia-tasa Europako batez bestekoaren azpitik dago eta per capita errenta, biztanle bakoitzeko errenta alegia, Europako batez bestekoa baino zertxobait handiagoa da.

Gaur egun dagoen egoerak desoreka handiak ditu eta etorkizunean izan daitekeen garapenaren aurreikuspenetan eragina dute.

Bilakaera demografikoari dagokionez, azken garai honetan urteko jaiotzen kopurua % 60 gutxitu da eta horrek berekin ekarri du etapa orokorrean hezkuntzaren eskaintzaren murrizketa estrukturala. Halaber, datozen 6 urteotan unibertsitateetako ikasleen kopuruak % 50en bat behera egitea ekarriko du. Jaiotza-tasa txikiagoa izateak sortutako ondorio horrek beste prozesu paralelo bat ekarriko du; seme-alabak izateko adineko gazte gutxiago izango dira eta. Euskal Herrian 1980. urtean 40.000 haur jaiotzetik 2000. urtean 16.000 haur jaiotzera pasatu gara eta, bilakaera horren arabera, litekeena da 2020. urtean 10.000ren bat haur jaiotzea.

Hori guztia kontuan hartuta, 2020. urtean bizilagun gutxiago izango dira eta, batez ere, eskolatzeko adinean egongo direnak izango dira gutxiago; horrela bada, eskolatutako kopurua egun dagoenaren erdia izango da, gutxi gorabehera, eta batez ere unibertsitate mailan izango da murrizketarik handiena, egun dagoenarekin pilatuko da eta.

Etengabeko prestakuntzaren garapenari dagokionez, dagoen banaketa politiko eta sozialak bizitza guztian prestatzeko sistema aurreratuak abian jartzea eragozten du; era berean, hezkuntzaren eskaintzaren garapenean duen pisua aurrekontuen eta antolaketa-sistemen aleatoriotasunaren baldintzapean dago. Ezin da hezkuntza-sistemaren bultzadarik espero, etengabeko prestakuntzatik badator behintzat.

Gaur egun gizonezkoen eta andrazkoen rol bereizietan dagoen desoreka aldatuz doa baina poliki-poliki. Emakumezkoen jarduera-tasa gizonezkoena baino askoz ere txikiagoa da oraindik ere eta orientabide akademikorako ikasleen joeretan eragin nabaria du ikasleen sexuak. Jarduera-tasa orokorrean Europakoa baino txikiagoa da eta gizonezkoen eta andrazkoen jarduera-tasaren artean 15 puntuko aldea dago.

Hezkuntza-sistematik ikasketak eginda irten eta lan-mundura joaten direnen kopurua gutxitu da eta horrek jarduera ekonomikoari bere hartan eusteko baliabide gutxiago daudela esan nahi du. Garapen sozio-ekonomikoaren premiak eta hezkuntza-sistematik ikasketak eginda lan-mundura joandako horien prestakuntza bat ez datozela eta,



pertsona oso kualifikatuek alde egiten dute eta kanpotik prestakuntza eskaseko pertsonala etortzen da. Halaber, emakumeak lan-munduan sartzea ere badakar horrek, batez ere prestakuntza eskaseko lanetan jarduteko.

Heziketa eleanitzari dagokionez, euskararen hedapenean ere banaketa politikoa eta soziala azaltzen da eta horrek normalizazioa zaildu ez ezik, gai horretan egungo tentsio sozialek beren hartan jarraitzea ere badakar. Hirugarren hizkuntza (ingeleza) sartzea orokortu egin da, baina ingeleza beste irakasgai bat besterik ez da; hau da, curriculumean (A ereduan) ikasteko dagoen beste asignatura bat besterik ez da eta ez da eskatzen eskolan egunero erabiltzea beste gai batzuk ikasteko tresna moduan.

Ikasteko eta irakasteko ereduaren egiturak egungo ezaugarrien antzekoekin jarraitzen du; hau da, buruz ikastea sustatuz, ikasteko banaka arituz eta rol aktiboa irakasleari dagokiola, helbururik behinena ezagutzak ikasleei transmititzea da. Ikasketak irakasgaika daude antolatuta.

Informazio eta komunikazio-teknologiak apurka-apurka ari dira sartzen hezkuntza-sisteman, baina teknologia horien inguruko ezagueren moduan; hots, erabiltzen ikasteko. Ez da aurrera egiten egituren eraldaketetan, teknologia berriak beste gai batzuk ikasteko eta irakasteko prozesuan erabat sartuta, kanpoko informazio-iturrietara sarbidea izateko, ikasleen eta irakaslearen edo ikasleen beren arteko harremanetarako bide moduan eta abar.

Heziketa-eskaintzak funtsean egungo egitura du, ikastegiaren sareak bereizirik, ikastegi bakoitzak erabakiak hartuta atomizazio handia egonik eta kudeaketa-sistemak zurrunka eta zaharkituak dira, batez ere herri-ikastegiaren; halaber, ez dago analisiak egiteko eta erabakiak denek batera hartzeko gutxienezko estamenturik. Horiek horrela, “norberak berea” egiteko joera nagusitzen da eta lehia handia dago ikasleak norberaren ikastegira erakartzeko. Lehia ez da hain handia, ordea, kalitate berezia eskaintzeko orduan.

Egiturak eta organizazioak ez aldatzeak ezinezko egiten du hezkuntza-sistema giza kapitalaren migrazio-joeretan aldaketa nabariak sorrarazteko beharrezko litzatekeen abiaduraz eraldatzea.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako hezkuntza-sistema krisian sartzen da eta, horrela, kanpokoen mendetasuna agertuta kanpoko elementuak sartzen dira Gipuzkoako hezkuntza-sisteman, barruan lehiakortasuna galdu delako, hain zuzen. Pertsona gazte kualifikatuak badoaz kanpora eta hona prestakuntza eskaseko lanak egiteko kanpoko jendea dator. Giza kapital gazte ondo prestatuaren galera handia da eta orokorrean



herrialdearen lehiakortasun maila galtzen da. Sortutako egoerari konponbidea emateko nolabaiteko adostasunera iritsi beharra nabaria da.

2.- Aldaketara egokitzea – (2. mikroeszenategia).

Egungo gizartean gertatzen ari diren aldaketez kontzientzia hartzeak, gerora, haien ondorioei aurre egiteko neurriak hartzea dakar, gizarteko desorekak gutxitze aldera.

Jaiotza-tasa gutxitzea neurri handi batean Gipuzkoako bizilagunen artean izan diren aldaketa kulturalengatik gertatu da, baina lan-merkatura egokituta ez egoteak eta hezkuntza-sistemari beharrezko arreta eman ez izanak ere baldintzatu dute hura.

Gipuzkoak aurre egiten dio gai horri beharrezko garrantzia emanda; horrela bada, familian betebeharrak eta ardurak dituzten pertsonentzat honako hauek sustatzen dira: eszedentziak, lanaldi partziala, amatasunagatik baimenak eta abar. Aldi berean, hezkuntza-sistemak eman behar duen erantzuna prestatzen du honako hauek kontuan hartuta: oraindik urtebete ez duten haurrak eta hortik gorakoak eskolatzea, eskola-egutegiak eta ordutegiak lan-egutegi eta ordutegietara egokitzea, eskola-jantokiak eta abar.

Aldaketa horiek, seme-alabak dituzten familiei ekonomiaren eta zerga-arinketaren alorrean horiek sustatzeko laguntzak ematearekin batera, jaiotza-tasek apur bat gora egitea ahalbidetzen dute.

Etorkinek nolabait bizilagun-kopuruaren jaitsiera leundu egiten dute eta mailak horrela egokiagoak dira. Biztanle-kopuruari eutsi egiten bazaio ere, biztanleak gero eta zaharragoak dira eta egungo jaiotzen mailak bere hartan segitzen du datozen 20 urteotan. Eskolan jarduteko adina dutenen kopuruari eutsi egiten zaio.

Ikasleek aukeratzen dituzten ikasketen edo lanbide-moten eta lan-jardueran dauden eskaeren arteko desorekek bizilagunek kontzientzia hartzea eragiten dute eta enplegurako dituzten irteerek baldintzatu egiten dute bokazioa. Horrela bada, ikasleek lan-jarduera ahalbide edo berma dezaten ikasketetarantz jotzen dute. Prozesu horrek desoreka handia dakarkio unibertsitatearen eta lanbide-heziketaren prestakuntza-eskaintzari, ikasketa batzuetako ikasle-kopuruak izugarri behera egiten duen artean beste karrera batzuetan gora egiten du eta.

Hala ere, emakumezkoen okupazioari dagokionez, sexuaren araberako espezializazioa ez da erabat gainditzen, batez ere, lanbide-heziketan, adar teknikoetan eta industrialetan gehien bat mutikoak ari dira eta. Sexuaren araberako bereizketa horrek horrela



jarraitzeak gizonezkoen eta andrazkoen jarduera-tasak ezberdinak izatea dakar, baita lanbide-prestakuntza ezberdina izatea ere. Gure jarduera-tasa, orokorrean, Europakoaren gainetik dago apur bat.

Etengabeko prestakuntza-sistemak antolaketa eta aurrekontu mailan egonkortasuna lortzen du, Euskal Autonomia Erkidegoak horri dagozkion eskumenak hartzen dituelako. Horiek horrela, hezkuntza-eskaintza egokia programatzeko marko egonkorra eratzen da.

Etengabeko prestakuntzaren garapenak hezkuntza-egituretan nolabaiteko aldaketa eragiten du eta ikasle-mota berrietara egokitutako hezkuntza-eskaintza sortzeko malgutasuna lortzen da.

Aldaketa batez ere lanbide-heziketako sisteman gertatzen da eta ez hainbeste unibertsitateko ikasketetan. Dena dela, etengabeko prestakuntza-sistemaren eskaintza barruko eskaeraren araberakoa da, berau baita sisteman nagusi.

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumenak hartzeak eta etengabeko prestakuntza-sistema sortzeak gizarte-eragileen eta administrazioaren arteko lankidetzaprozesu argi bati irekitzen diote atea eta horrek eragin positiboa du giza kapitalean.

Ikastegiak hobetzeko eta elkarri ulertzeko giro horretan, hizkuntzak ikastea eta teknologia berrien erabilera aurreratua bezalako beste gai garrantzitsu batzuei ekin ahal zaie; hala ere, modu esperimentalean zenbait ikastegitan aurrerapen handia lortzen den arren, ez dira modu estrukturalean orokortzen.

Ikasketak amaituta lan-mundura sartzen direnen kopurua txikiagoa izan arren, problema arintzen da, batetik, lan-munduaren eskaera eta hezkuntza-sistema lehen baino neurri handiagoan bat datozelako, etengabeko prestakuntzaren bidez jardunean dagoen pertsonala trebatuz eta andrazkoei eskaerarekin bat datorren trebakuntza emanaz eta, bestetik, hautatzeko irizpide baten arabera heldutako etorkinak lan-munduan sartzen direlako.

Mikroeszenategi honetan euskal hezkuntza-sistema gero eta hobeto dagoela aurreikus daiteke, gizarte-beharretara aldeztu aurretiko politiken bidez egokitzen saiatzen da eta.



3.- Heziketaren lidergoa – (3. mikroeszenategia).

Gipuzkoako hezkuntza-sistemakoak, batez ere lanbide-heziketakoak eta unibertsitatekoak, gizartearen eraldaketan prestakuntza-prozesuak berebiziko garrantzia duela eta bizitza guztian trebatzeko sistema aurreratu bat garatu beharra dagoela ohartu dira.

Gipuzkoan oinarrizko ikerkuntza aplikatua garatzeak eta unibertsitateak, zentro teknologikoak eta lanbide-heziketaren egitura egoteak ahalbidetzen dute elkarrekin harremanak izateko sistema bat sortzea eta horrela edozein adin eta baldintzatako pertsoneri prestakuntza aurreratua emateko sistema bat sortzen da.

Beren espezialitatean Europan liderrak diren zenbait ikastegi bikain sortzeak lurraldeko mugez haragoko ikasleak, beste erregio zein herrialdeetakoak, erakartzen dituen prestakuntza-eskaintza duen sistema bat izatea ahalbidetzen du.

Prestakuntza eta trebetasunak ebaluatzeko, egiaztatzeko eta kreditatzeko sistema berri bat artikulatze-bidean gizarteak aurrera egiteaz batera, heziketa eta prestakuntza-sistemak ikasleek ezagutzak eta lanbide-prestakuntza hartzeko izan duen sistemaren ordezkari modurik onena duen beste bat abian jartzen du; azken honetan araututako hezkuntzaren, lanerako prestakuntzaren eta etengabeko prestakuntzaren egiturek planteatzen dituzten oztopoak desagertzen dira malgutasun handia dagoelako. Horrekin batera, **SISTEMA** sortuta, ikastegiak modu trinkoan teknifikatu eta espezializatu egiten dira eta horrela bakoitza bere espezialitatean lider bihurtzen da Europa mailan.

Sektore ekonomiko gehienak kontuan har ditzaten jarduera-eremuak jorratu behar dituzte espezialitateen aukerak eta eskaintza globalak, eta haietako bakoitzarentzat erreferentzia teknikoak izan behar dute. Testuinguru horretan ikastegiei honako hauek izango dituzte ikasleak: lehen prestakuntzan ari diren gazteak, unibertsitate-titulua izanda espezializatu nahi dutenak eta gaurkotu eta prestakuntza aurreratua nahi duten enpresetako teknikariak.

Prestakuntza-prozesu honek ikastegietako egungo egiturak erabat aldatzea eskatzen du, gai bakoitzeko aditurik onenak irakasle kontratatuz ahalmena edukitzeko eta ikasle-mota berrien behar berezietara egutegiak, ordutegiak, irakasteko lekuak eta metodologiak egokitu ahal izateko. Aldaketa horretarako ikastegiak batu, inbertsio handiak egin eta ikastegien kudeaketa-sistemak moldatu beharko dira.



Horrelako jarduera bat garatzeko irakaskuntza eleanitzari ekin beharko zaio, hiru hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) irakatsi ahal izateko. Halaber, prestakuntza-sistema aurreratuak erabili beharko dira eta horretan ikastegira bertara joan ahalko dira edo informazio eta komunikazio-teknologia berrien erabilera trinkoaz modu birtualean egon ahalko dira ikasleak ikastegian.

Bizitza guztian prestakuntza jasotzeari aurre egiteko eta Gipuzkoako lurraldetik kanpoko ikasleentzako eskaintza plazaratzeko, merkatuek zabalagoak izan behar dute. Halaber, prestatzeko jarduerak garrantzi handiagoa hartzen du horrela eta lanbide-heziketaren kontzeptu zabala herriaren garapen sozio-ekonomikorako ardatz bihurtzen da.

Zalantzarik gabe, horrelako prozesu bat oso aberasgarria da giza kapitalarentzat; izan ere, badu, Europako erregiorik aurreratuenekin lehian jarduteko, bere-berea den prestakuntza-sistema, egiaztatua izan dena, gainera.

Horrelako proiektu bat egiteko **“koordinaziorako eta sustapenerako organoa”** sortu beharra dago eta horretan, zenbait administrazio eta entitate partaideak izanik, guztiena den ikuspegi erkidea sortzen dute.



4.- Lidergo zientifiko-teknikoa - (4. mikroeszenategia).

Prestakuntza-sistemaren eta giza kapitalaren babesa duen edo horietan oinarritzen den mikroeszenategia da, dituen mugez harago gizarte-eredu berri batean murgiltzen dena.

Mikroeszenategi honen oinarrien artean lehendabizi **giza kapitalaren optimizazioaren** kontzeptua dago eta honen ezaugarriak nabarmenenak honako hauek dira:

- Jarduera-tasa parekatzea Europako erregiorik aurreratuenetakoarekin, batez bestekoaren gainetik dagoen jarduera-tasa batekin alegia, eta gizonezkoen jarduera-tasaren parean dagoen edo ia parean dagoen andrazkoenari arreta berezia eskainiz.
- **Prestakuntza behar duten ikasleen kopuruak** orientatzea Europako erregiorik aurreratuenak erreferentzia-eredutzat hartuta. Bizilagunei lortu nahi den gizarte-ereduarekin bat etorritz ematen zaie prestakuntza.
- Bizitza guztian prestakuntza jasotzeko sistema sortzea. Honek bere baitan hartuko ditu gizartearen antolaketa-sistema, prestakuntza-sistema teknikoa eta ikastegiaren eskaintza aurreratua.

Mikroeszenategi honen beste ezaugarri bat **pertsonari heziketan eta organizazioetan protagonismoa** aitortzea edo onartzea litzateke eta ezaugarri horrek honako alderdi hauek ditu:

- Prestakuntza-sistemaren aldaketa handia, ezagueretan, trebetasunetan, gaitasunetan eta balioetan heztearen sustatuz.
- Ikaslearen protagonismoa eta irakaslearen rola aldaketa.
- Teknologia berrien erabilera aurreratua.
- Unibertsitateen arteko lankidetzaren handia prestakuntza-sistema aldatzeko. Unibertsitateen Euskal Kontseilua sortzea, guztiek batera egituren aldaketek ekiteko.
- Kudeaketa-alarrean aurreratuta egon daitezkeen sozietateak eta organizazioak garatzea eta horiek eredu garri bihurtzea, horietan pertsonak protagonismoa duelarik.



- Organizazio aurreratuak kreditatzeko edo saritzeko sistema.

Elkarlanean egindako ikerkuntzaren garapena ere mikroeszenategi honetako helburua litzateke. Horretarako oinarrizko ikerkuntzaren eta unibertsitateen, zentro teknologikoen eta enpresen arteko harremanen (gune berritzailea) garapena planifikatzeko baldintzak sortu beharko lirateke:

- Oinarrizko ikerkuntzarako plana sortzea.
- Unibertsitateen, zentro teknologikoen eta enpresen arteko harremanak eta loturak eratzea (sistema sortzea eta orokortzea).
- Ezaguera aurreratuak etengabeko prestakuntzara ere helaraztea.

Ekintza komunitariorako kudeaketa-sistema batean oinarritua egon behar dute azaldutako hiru zutabe horiek eta proposatutako helburuekin bat etorri. Munduan zehar badira hainbat erregiotan kudeaketa-sistemen adibide argiak, esate baterako, Singapurren, Ipar Karolinan eta Finlandian.. Singapurreko Economic Development Board garapenerako lidergoaren adibide argia dugu eta horretan administrazioek ez ezik, ekonomia eta gizarte-alorreko estamentuek ere parte hartzen dute.

Horrekin guztiarekin planteatzen liteke Gipuzkoak lidergo zientifikoa eta teknologikoa izatea, aipatutako oinarriei beste helburu batzuk ere gaineratuta; hala nola:

- Gaitasun handia duten kanpoko pertsonak geureganatzea.
- Hizkuntzen erabilera maila guztietan orokortzea (irakaskuntza terminal eleanitza).
- Herritar gehienek informazio eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzea.

Mikroeszenategi honek aurreko egoeretako onena jaso eta zabaldu edo garatu egiten du.



Erronka: Giza Kapitala

Hausnarketa Taldea

- **Javier Retegi** (Koordinatzailea)
- **Aitor Soria**. Mondragon Unibertsitatea
- **Francisco Blanco**
- **Jose Luis Garitano**. Adegifor
- **José M^a Elola**. Ikaslan
- **José Ramón Guridi**. GFA-ko Lehendakaritza Departamentua
- **Joseba Amondarain**. GFA-ko Ekonomia eta Turismoko Departamentua
- **José Ramón Beloki**. GFA-ko Ekonomia eta Turismoko Departamentua
- **Juan Miguel Mendoza**
- **Lander Sarasola**. EHU-UPV
- **Manuel Fuentes**. CEIT
- **Markel Arizmendi**. HETEL
- **Pedro Ustarroz**. INEM
- **Vicente Huici**. UNED Bergara
- **Xabier Barandiaran**. Deustuko Unibertsitatea Donostia
- **Mikel Irasuegui** (G2020 Idazkaritza Teknikoa)



Lurraldea erronkaren minieszenategiak

Koordinatzaile-Idazlea: Xabier Unzurrunzaga



ERRONKARAKO MINIESZENATEGIEN AZALPENA: LURRALDEA

Sarrera.

Lurraldeari dagozkion egoerak landu dituen taldeak bost mikroeszenategi identifikatu bazituen ere, azkenean lau gelditu dira.

Bost mikroeszenategi horiek gakotzat jotako eta ekitaldiaren aurreko etapetan identifikatuak izan ziren aldagaiei loturiko hipotesien jokotik atera dira. Mikroeszenategi guztietan, azpian dagoen eta guztiona den hausnarketa da, aldagai gako horietako edozein etorkizunari begira aztertuz gero, lurraldean eta lurraldearekin planteatu nahi dugunaren araberrako ikusmolde ezberdinak kontuan hartu behar ditugula.

Ez da gauza bera ibarren barreneko lurraren agortzea planteatzea udalerrri bakoitzetik edo beste maila batetik.

Ez da gauza bera Gipuzkoaranzko eta Gipuzkoa barruko mugikortasuna edo Gipuzkoa eta bere ingurua planteatzea.

Ez da gauza bera osasun-ekipamenduak edo kirol-ekipamenduak planteatzea, bakoitzak bere eskala du eta horrelaxe jarrai genezake lurralde-antolaketaren elementu guztiekin.

Gutxienez analisirako 4 ikuspuntu identifikatu ditugu: 3 lurralde osorako eta bestea natur ingurunerako.

1. ikuspuntua udalerriarekin bat etorriko litzateke, edo auzoarekin hiri handia izanez gero.
2. ikuspuntuak udalerrriak edo auzoak erlazionatzen ditu. Badira udalerrriak edo auzoak hiri-erlazio estua dutenak eta hauetan lurralde-antolaketak 1. eskalan agertzen ez den beste premia-mota bati erantzuten dio (hori izango litzateke lehenago erdigune berriak... izenez aipatu dugunaren kasua).
3. ikuspuntuak gainerako eskaletatik ezin ikus daitezkeen beste behar batzuk kontuan hartzeko balio du; hala nola: jardueretarako lurra, azpiegituretarako lurra,..., herritar guztiak oro har batzen dituzten zerbitzuak eta abar.



4. ikuspuntuak natur ingurunearekin du zerikusia eta honen araberako antolaketaren dimentsioa ez dator bat hiri-eskalaren dimentsioekin.

Analisi-batasuna eta hiri-egitura gaketzat hartuta pentsatzea garrantzitsua da egiteke dagoen etorkizun batez gogoeta egiteko, etorkizun horretan datozen urteetan sortuko diren beharretara egokitu beharko duela lurraldeak.

Zirriborrotutako lau mikroeszenategi horiek etorkizunean gerta daitezkeen hainbat aukera hartzen dituzte kontuan, joeraz arruntena dela iritz diezaiokegunetik hasi eta haustura positibotzat edo traiektoria negatibotzat jo ditzakegun beste batzuetaraino.

Gipuzkoa lehendiko joerei jarraituz gero - (1. mikroeszenategia).

Lurralde-antolaketaren inguruan sortuz joan diren joera sendoak Gipuzkoako 88 udalerrietan azken hamarkadetan praktikan jarritako hirigintza-planeamendurako eta kudeaketarako, ia beti modu puntualean, izandako prozesuetan eta dinamiketan oinarritu dira eta lehendik datozen joera sendo horiek mikroeszenategi estatiko eta apurka-apurka gain behera etorriko dena sortzeko arriskua dago. Gipuzkoako lurraldeak, osorik hartuta, lurralde-antolaketa atzerakoi bati jarraituaz bilakatzen eta garatzen segitzeko arriskua du; hau da, erantzuteko orduan beti bat-batekotasunean arituz eta hirigintzaren alorreko barruko zein kanpoko eskaera aldakorren atzetik beti. Eta hori segur aski epe ertainean eta luzean sendotuz eta indarra hartuz joango diren teknologia berriek sortutako hiri eta lurralde-bilakaerei eta eraldaketei buruz dauden itxaropen eta dinamika berriek lurraldean zuzen-zuzenean eragina izan arren.

“GIPUZKOA HIRIA” dei dezakegun ereduranzko trantsizio-prozesu ekidinezina berez eta modu desorekatsuan gertatuko da, guztiaren gaineko ikuspegirik gabe, isolatutako eta koordinaziorik gabeko esku-hartze zenbaiten batura izango delarik. Aipatutako esku-hartze horiek beren hartan zuzenak dira baina ez dira gai, etorkizunari begira eta ikusmolde aurrerakoi batetik, lurralde osoa egituratzeko.

1. Lurraren politika.

Ekonomi jardueretarako lurraren okupazioa burutzeko erabiltzen den eredu espaziala tradiziozko jarraibideen arabera da eta handitzeko dagoen joera eta eraldaketa-asmoa udalerrri mailan gauzatzen dira.

Ibarren barreneko lur lauak poliki-poliki okupatzen eta betetzen ari direnez gero, maldetako lurak ere apurka-apurka urbanizatzen eta okupatzen ari dira. Maldetako lurretan hiria eraikitzeke bat-bateko prozesu honek hiri sakabanatu, gaizki egituratu eta iraunarazte-lanetarako kostu handiak dituen hiri baten irudia emateko arriskua du.

Berez dauden hiri-aldaketarako eta hiriak handitzeko dinamikek “lurra asmatzeko” etengabeko prozesua eragiten dute, sortutako eskaerei erantzuteko.

Lur lauaren baliabidea poliki-poliki agortzeak hiria berriro sailkatzeko eta berregokitzeko etengabeko prozesua sortzen du eta honek, era berean, Gipuzkoako hiririk garrantzitsuenetan hiri-erdigune berriak sortzea ahalbidetzen du.

Udalaz gaindiko izaera eta eskalako ekipamenduetarako eta azpiegituretarako lur-erreserben planifikazioa eta kudeaketa oso motel eta zailtasun handiz egiten dira oraindik ere.



Landa-lur edo nekazaritza-lur asko okupatzen ari dira etengabe, hiriguneen mugen ondoan badaude, ekonomi eragileek egoitza eta industria-jarduerekin zerikusia duten politika sektorialeki leku egiteko egiten duten presioagatik.

2. Azpiegituren eta garraioaren politika.

Gipuzkoako bideen azpiegiturretan hobekuntza bat gertatu da poliki-poliki, dauden sareak bete ahala izaten diren esku-hartze puntaletan oinarrituta; eta hori, pilatutako defizitei erantzuteko eta eskaera sozio-ekonomikoaren presioa tartean, azken hauei ohiko kudeaketa-tresnekin erantzun egiten zaiela.

Toki mailako hiri-garraioa sustatzen da, Gipuzkoako eskalan kontzesioak eginez.

Dagoeneko bukatuta dagoen Y-a trenbideaz –neurri handi batean Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuen arteko Inter-City moduan planteatuta- Euskal Herriaren eta Gipuzkoaren lurralde-ereduan eragina izango duten hirigintzari begirako itxaropenak sortu dira. Lehenagoko planeamenduetan aurreikusita egon ez denez gero, lurralde-antolaketari dagokionez, mikroeszenategi berriak desoreka estruktural handiak sortuko ditu Gipuzkoako lurraldean.

Ekonomi jarduerarekin zerikusia duen mugikortasunak lehenagoko hamarkadetan bezalatsu jarraitzen du, Europako beste lurralde eta herrialdeen aldean, poliki-poliki lehiakortasuna galtzen ari garela. Ez da handitu Pasaiaiko kanpoaldeko portua eta, merkantzien garraioari dagokionez, barrukoaren zein Gipuzkoan zehar dabilenaren zirkulazioari, errepidez zein trenbidez, erantzun koherentea emateko zailtasunak gero eta handiagoak dira.

Gipuzkoa oraindik ere, aireportu-zerbitzuei dagokienez, baldintza kaskarretan dago eta inguru geografikoko 5 aireporturen mendean dago.

3. Ekipamendu handien sistema.

Izaera instituzionaleko zenbait ekipamendu apurka-apurka hobetu dira eta horien lurralde-desentralizazioa gauzatzen ari da, baina beharrezko koordinaziorik gabe.

Lurralde historiko mugakideekin egindako kultura, hezkuntza eta osasun-alorretako ekipamenduen plan integrala falta dela erraz detektatzen da.

Interes orokorreko natur parkeei dagokienez, horniketak etengabe hobetzen ari direla eta emeki-emeki paisaia babesteko herritarrak kontzientzia hartzen ari direla ikus daiteke.

4. Ingurumenaren politika.

Bizi-kalitate maila egoki baten alde egiten da, lurraren baliabideen nolabaiteko kontrolarekin, baina interes ekonomikoak, ingurumen-kalitatearen gainetik, lehenesteko joera dago.

Edozerk ingurumenean duen eraginari buruzko azterlan onak egiten dira.

Okerrak zuzentzeko neurriak -araztegiak, iragazkiak eta abar- hartzen dira, xedea ingurumeneko bektoreak –ura, airea, lurra- asimilatze gaitasun egokia erdiestea izanik.



Gipuzkoa desorekatua. Donostialde Handia - (2. mikroeszenategia).

Hipotesi honek Gipuzkoako ipar-ekialdearen hiri-garapena hartzen du kontuan. Lurralde-zerrenda lineal horrek 50 kilometro ditu eta berezko lasterbidea osatzen du Zarautzetik Hondarribiaraino, Donostia erdigunea izanik.

Kostaldearen zati horretan metatzen dira Gipuzkoa guztiak dituen lur lauaren baliabiderik gehienak eta paisaiaren ikuspuntutik oso baliotsua da alde hori. Beste alde batetik, era guztietako ekipamenduz ongi hornituta dago zonaldea eta alde mugakideek baino sarbide hobeak eta mugitzeko erraztasun handiagoak ditu; hortaz, bizi-kalitate handiko aldea da.

Donostialdeak handitzeko duen dinamika handiak desoreka gero eta handiagoa sortzen du Gipuzkoako lurralde-egituran. Desoreka hori Gipuzkoako bailarak, eta bereziki Deba, Urola eta Oria goieneko bailarak, betetzen ari direla eta are handiagoa da.

Baionarantz berezkoa den lurralde-ardatzaren luzapena -Donostia-Baiona eurohiria-mantso-mantso sendotuz doa eta epe ertain eta luzean etorkizunerako itxaropen handiak sortzen ditu. Horiek horrela, Euskal Herriko egitura sozio-ekonomikoan eta lurraldean gero eta garrantzia handiagoa izango duen metropoli barrutia eratzen ari da aipatu bezala.

1. Lurraren politika.

Ekonomi jardueretarako lurraren okupazioa burutzeko erabiltzen den eredu espaziala tradiziozko jarraibideen arabera da eta handitzeko dagoen joera eta eraldaketa-asmoa udalerrri mailan gauzatzen dira.

Ibarren barreneko lur lauak poliki-poliki okupatzen eta betetzen ari direnez gero, maldetako lurak ere apurka-apurka urbanizatzen eta okupatzen ari dira. Maldetako lurretan hiri eraikitzeke bat-bateko prozesu honek hiri sakabanatu, gaizki egituratu eta iraunarazte-lanetarako kostu handiak dituen hiri baten irudia emateko arriskua du.

Berez dauden hiri-aldaketarako eta hiriak handitzeko dinamikek “lurra asmatzeko” etengabeko prozesua eragiten dute, sortutako eskaerei erantzuteko.

Lur lauaren baliabidea poliki-poliki agortzeak hiri berriro sailkatzeko eta berregokitzeko etengabeko prozesua sortzen du eta honek, era berean, Gipuzkoako hiririk garrantzitsuenetan hiri-erdigune berriak sortzea ahalbidetzen du.

Udalaz gaindiko izaera eta eskalako ekipamenduetarako eta azpiegituretarako lur-erreserben planifikazioa eta kudeaketa oso motel eta zailtasun handiz egiten dira oraindik ere.

Landa-lur edo nekazaritza-lur asko okupatzen ari dira etengabe, hiriguneen mugen ondoan badaude, ekonomi eragileek egoitza eta industria-jarduerekin zerikusia duten politika sektorialeki leku egiteko egiten duten presioagatik.

Kostaldeko hirietan lurra duen kostu handiak, batez ere Donostian eta neurri txikiagoan Zarautzen eta Hondarribian, barruko desoreka gero eta handiagoa sortzen du eta jarduera jakin batzuk eskualdeko periferiako udalerrietara aldarazteko joera azaltzen da, gainera sakabanatuta agertzen dira horrela jarduera horiek.

“Donostia Handiaren” sendotzearen aurrean, Donostialdeko lurralde egitura berriro orekatzeko hirigintzako neurriak planteatzeko eta kudeatzeko xedea izanik, eskualde zein udalerrri mailan, planeamenduko figura batzuk tratatzeko neurri zuzentzaileak hartzen direnik ez da ikusten.

Hirigintzari eta azpiegiturei dagokien esku-hartze puntualak –errepideak, egoitza-aldeak, parke teknologikoak, industrialdeak, kirol-eremuak, parkeak eta abar-planifikatu eta kudeatu egiten dira, baina hirigintzaren ikusmolde integral batetik baino gehiago objektutat hartuta.

2. Azpiegituren eta garraioaren politika.

Urumearen autobidea eta Donostiaren bigarren ingurabidea egiten ari dira.

Garrantzi handiko bi trenbide-azpiegitura funtzionatzen ari dira dagoeneko -euskal Y-a eta “topoaren” luzapena Hendaiatik Baionaraino-, eta horrek leku batzuetara iristeko eta batetik bestera mugitzeko erraztasun handiagoa esan nahi du, bai Euskal Herri mailan, bai metropoli barruti mailan. Donostialdeak inguruko lurraldeekiko lehiakortasun handiagoa lortzen du; bien bitartean Gipuzkoako beste alde batzuk apurka-apurka “baztertuta” geratzen ari dira.

Ekonomi jarduerarekin zerikusia duen mugikortasunak, hobetu arren, problema estruktural handiekin jarraitzen du, Europako beste lurralde eta herrialdeen aldean, poliki-poliki lehiakortasuna galtzen ari dela. Ez da handitu Pasaiako kanpoaldeko portua eta, merkantzien garraioari dagokionez, barrukoaren zein Gipuzkoan zehar dabilenaren zirkulazioari, errepidez zein trenbidez, erantzun koherentea emateko zailtasunak gero eta handiagoak dira.

Toki mailako hiri-garraioa sustatzen da, Gipuzkoako eskalan kontzesioak eginez.

Komunikazio-sistema berriak inguruko aireportuen sarera iristeko bideak hobetzea ahalbidetzen du. Donostialdearen eremutik, batez beste, nazio barruko hegaldiak 20 minutura eta nazioarteko hegaldiak 30 minutura daude. Donostia-Baiona konurbazioko lurraldean nazioarteko aireportu bat egiteari buruz eztabaidatzen jarraitzen da.

3. Ekipamendu handien sistema.

Ekipamenduen sistema orokor handiak Donostia inguruan pilatzeko joera indartu egiten da, sortutako beharren ikuspuntutik gehiago lurralde guztiaren hiri-egituraren ikuspuntutik baino.

Ekipamenduak pilatzeko politika horrek Gipuzkoan, lurraldearen eta hirigintzaren aldetik, desoreka gero eta handiagoa sortzen du.

Lurralde historiko mugakideekin egindako kultura, hezkuntza eta osasun-alorretako ekipamenduen plan integrala falta dela erraz detektatzen da.

Interes orokorreko natur parkeei dagokienez, horniketak etengabe hobetzen ari direla eta emeki-emeki paisaia babesteko herritarrak kontzientzia hartzen ari direla ikus daiteke.

4. Ingurumenaren politika.

Poliki-poliki ekosistema naturalak edo erdi-naturalak galtzen edo murrizten ari dira eta natur paisaia eta landa eta nekazaritza-ingurua narriatzen ari dira.

Bizi-kalitate maila egoki baten alde egiten da, lurraren baliabideen nolabaiteko kontrolarekin, baina interes ekonomikoak, ingurumen-kalitatearen gainetik, lehenesteko joera dago.

Edozerk ingurumenean duen eraginari buruzko azterlan onak egiten dira.

Okerrak zuzentzeko neurriak -araztegiak, iragazkiak eta abar- hartzen dira, xedea ingurumeneko bektoreak –ura, airea, lurra- asimilatzeko gaitasun egokia erdiestea izanik.

Gipuzkoa berrakibatua. Proaktibitatea eta aitzindaritza - (3. mikroeszenategia).

Mikroeszenategi hau ikuspuntu aurrerakoi eta aitzindari batetik planteatzen da eta XXI. mendearen hasieran sartuta gauden une historiko garrantzitsua kontuan hartzen du. Lurraldearen eraldaketaren prozesua ikusteko edo ulertzeko modua aldatzen da eta, marko sozio-ekonomiko global batean egonik eta Europako gure inguruarekin lehian izanik, gizarte aurreratu baten eskaerei modu koherente eta jantzian erantzuten zaie.

Historian izandako antzeko zirkunstantzietan, XIX. mendearen amaieran esate baterako, iraultza industrialak sortutako hiri eta lurralde-eraldaketarako prozesuan modu positibo eta ausartean integratu zirelarik, Gipuzkoako gizartearen beste belaunaldi batzuek erakutsi zituzten hiri-kulturako koherentzia mailak nolabait berriz ere erdiestea da asmoa.

Abiatzeko testuinguru honetan lurraldearen ikuspuntu integrala izateko, lurraldearen antolaketako eta planeamenduko figuretarako eta eskaletarako ikusmolde berri bat behar da; eta hori osotasunean eta zatirik edo piezarik garrantzitsuenetan ondo egituratutako GIPUZKOA BATEN IRUDI-IDEIA argian oinarrituta.

Hiri eta lurralde mailan eraldaketarako eta berriro orekatzeko prozesuen eta dinamiken barruan, hirigintzako eta azpiegituren alorreko esku-hartzeak proiektatuko eta kudeatuko dira modu ausartean eta jantzian.

Prozesu horien kudeaketa burutzeko beharrezkoak izango dira departamentuen arteko eta erakundeen arteko adostasunean oinarritutako politikak, sektore publikoak eta sektore pribatuak modu orekatsuan horietan parte hartzen dutela.

1. Lurraren politika.

Lurraren okupazioa burutzeko erabiltzen den eredu espazialean handitzeko dagoen joera eta eraldaketa-asmoa udalerrri mailan gauzatzen dira, baina poliki-poliki erdigune berriak sortzen ari dira herriez gaindiko maila batean.

Lurralde eta hiri-eskala ezberdinetan dagoen politika sektorialen eta planeamendurako tresnen orientazio berriak ahalbidetzen du Gipuzkoako lurralde eta espazio globalaren egituran hiri-erdigune moduan azaltzen diren herriez gaindiko areak sortzea eta indartzea; eta hauek Gipuzkoako erdigune bakartzat Donostialdea indartzen duen ereduaren alternatiba gisa azaltzen dira. Erdigune berriak izatera hel daitezkeen herriez gaindiko area batzuk honako hauek dira:

Urola Erdikoa: AZPEITIA-AZKOITIA.

Goierrri: BEASAIN-ORDIZIA-LAZKAO.

Debagoiena: ARRASATE-ARETXABAETA-ESKORIATZA.

Debarrena: EIBAR-ERMUA.

DONOSTIA-BAIONA KONURBAZIOA.

Landa-lurrean, nekazaritza zein basogintzarako lurretan, oreka berriak sustatzen dira eta Gipuzkoako lurralde guztian artikulatutako herrixka txikiei arreta berezia eskaintzen zaie.

Ibarren barreneko lur lauak poliki-poliki okupatzen eta betetzen ari direnez gero, maldetako lurrak ere apurka-apurka urbanizatzen eta okupatzen ari dira. Maldetako lurretan hiria eraikitzekeo prozesu hau bideratu egiten da, lurraldearen gorabeheretara egokitutako hiriaren irudi berri bat sortzeko ahaleginak eginez.

Berez dauden hiri-aldaketarako eta hiriak handitzeko dinamikek “lurra asmatzeko” etengabeko prozesua eragiten dute, sortutako eskaerei beti hiriaren kalitate maila altuarekin erantzuteko.

Udalerrri mailan lurra berriro sailkatzeko eta berregokitzeko etengabeko prozesua dago eta honek kultura maila handiagoko hiri-erdigune berriak sortzea ahalbidetzen du.

Hiri eta lurralde-antolaketarako prozesuak planifikatu eta kudeatu egiten dituzten erakundeen arteko eragile berriak sortzen dira, lehiatzeko egokia den marko batean mugikortasun hobea eta ongizate eta bizi-kalitatearen maila altuak lortzeko.

2. Azpiegituren eta garraioaren politika.

Batetik, azpiegitura berriak planeatzeko, proiektatzeko eta kudeatzeko eta, bestetik, dauden azpiegiturak lehengoratzeko eta berregokitzeko politikari ikusmolde berriekin eta, lurraldearen antolaketari dagokionez, ikuspuntu global batetik ekiten zaio.

Hasierako helburua Gipuzkoa barruko mugikortasuna pixkanaka-pixkanaka hobetzea eta kanpotiko eskaerekin eta lurraldean igartzeko direnekin artikulatzea da.

Modu ausartean ekingo zaio Gipuzkoako bailarak iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera modu arinean lotuko, artikulatuko eta egituratuko dituen bide-sare bat egiteari, xedea Gipuzkoako mutur batetik bestera joateko gehienez 30 minutu emateko, denbora luzeagoa behar ez izateko alegia.

Garraio publikoaren sarea integrala izango da, Gipuzkoako herritar gehienek esku mugikortasunik onena jartzeko.

Barruko zein kanpoko ondasunen eta zerbitzuen mugikortasun gero eta hobea bermatzeko, azpiegitura berriak planifikatuko eta egingo dira. Obren artean, Pasaiako kanpoaldeko portua da aipagarriena.

Lurraldearen antolaketan eragin handia duten trenbide-azpiegitura berriak abian daude dagoeneko: Y-a euskal “intercity” moduan, topoaren luzapena Hendaiatik Baionaraino, Donostiatik Bilborainoko Feve-ren trenbidea bi errailetakoa izatea eta Deba eta Urola bailaretan ardatz nagusiarekin bat egiten duten ondo artikulatutako trenbide-adarrak.

Nafarroarekin eta Zaragozarekin lotzeko abiadura handiko trenbidea gauzatzen da eta horrek hobekuntza itzela dakar Bartzelonara, Madrilera eta Frantziako Tolosara zerbitzuak, ondasunak eta pertsonak iristeko zein handik hona etortzeko.

Landetan nazioarteko aireportu bat eraikitzen da, Euskadiri eta Akitaniari zerbitzua emateko, eta abiadura handiko trenbidearekin loturik dago.

3. Ekipamendu handien sistema.

Gipuzkoako hiri-lurralde eta natur lurraldeko leku estrategikoetan kultura, hezkuntza, kirol, osasun eta beste alor batzuetako ekipamendu handien sistema orokor berriak kokatu eta eraiki egiten dira, baita parke berriak ere, jarduera-ardatz berriak eta erdigune berriak sortzeko; eta hori GIPUZKOA HIRIAREN eredu deszentralizatu eta berriz ere orekatu baten bila.

Ekonomi jardueraren inguruan sortutako ekipamenduek hiriguneen eta naturguneen arteko oreka espaziala eta estrukturala berriz lortzen lagunduko dute.

4. Ingurumenaren politika.

Baliabide berriztagarriak berriztatzeko tasak errespetatu egiten dira eta berriztagarriak ez diren baliabideen kasuan birziklatzearen, berriro erabiltzearen edo lehengoratzearen alde egiten da, ingurumena babesteko ikuspuntuari lehentasuna emanez.

Ekosistema nagusiak -ibaiak, kostaldea, basoak...- babestu eta lehengoratzearen alde egiten da, paisaia babesteari arreta berezia eskainiz.

Lehen sektoreak ekonomian, gizartean, ingurumenean eta kulturaren duen funtzioa modu positiboan baloratzen da eta, hortaz, zaindu egiten da.

Ingurumenean edozeren eragina zein den ikusteko azterlanak egiten dira, kultura zein teknikaren ikuspuntutik seriotasunez eta zehaztasunez egin ere.

Okerrak zuzentzeko neurriak -araztegiak, iragazkiak eta abar- hartzen dira, xedea ingurumeneko bektoreak -ura, airea, lurra- asimilatze gaitasun egokia erdiestea izanik.

Efluenten kopurua sorburuan bertan gutxitzeko politikak aplikatzen dira eta haiek lehengoratzea eta berriro erabiltzea sustatzen da.

Gipuzkoa agortuta - (4. mikroeszenategia).

Immobilismoaren mikroeszenategia da. Udalek beren beharren eta interesen arabera jarraitzen dute lurra planifikatzen eta lurra bete-beterik dagoen, zabaltzea ezinezkoa den eta lurralde guztia kontuan hartzen ez duen ikuspuntua dagoen egoeraz ohartzen hasten dira. Planifikatzeko eskualde mailako kultura izateko egindako ahaleginak zabaldu ezin daitezkeen alde bete-beteetan baino ez dira gauzatu.

Garapen ekonomizista gailentzen da eta, pertsona bakoitzeko kontsumoa oso handia izanik, bereizi gabe erabiltzen dira natur baliabideak.

Eredua ez da, inondik ere, jasagarria, lurraldea agortzera darama eta. Ikuspegi partzial eta puntu jakin baterakoa da planifikatzeko orduan nagusitzen dena. Mikroeszenategi honetan gabeziei garapen eta azpiegitura berri gehiagorekin erantzun nahi zaie, dauden azpiegiturak ondo kudeatu beharrean. Horrez gain, ez dago apenas erakundeen arteko koordinaziorik edo lankidetzarik.

1. Lurraren politika.

Ekonomi jardueretarako lurraren okupazioa burutzeko erabiltzen den eredu espaziala tradiziozko jarraibideen araberkoa da eta handitzeko dagoen joera eta eraldaketa-asmoa udalerrri mailan gauzatzen dira.

Ibarren barreneko lur lauak poliki-poliki okupatzen eta betetzen ari direnez gero, maldetako lurrak ere apurka-apurka urbanizatzen eta okupatzen ari dira. Maldetako lurretan hiria eraikitzeiko bat-bateko prozesu honek hiri sakabanatu, gaizki egituratu eta iraurarazte-lanetarako kostu handiak dituen hiri baten irudia emateko arriskua du.

Berez dauden hiri-aldaketarako eta hiriak handitzeko dinamikek “lurra asmatzeko” etengabeko prozesua eragiten dute, sortutako eskaerei erantzuteko.

Landa-lur edo nekazaritza-lur asko okupatzen ari dira etengabe, hiriguneen mugen ondoan badaude, ekonomi eragileek egoitza eta industria-jarduerekin zerikusia duten politika sektorialeki leku egiteko egiten duten presioagatik.

2. Azpiegituren eta garraioaren politika.

Garraio publikoa sustatzeko ahaleginik egin ez delako, edo ahaleginak eskasak izan direlako, herritarrek egunero etxetik lanera edo lanetik etxera joateko ibilgailu pribatua erabiltzen dute eta auto-ilarak etengabe eraten dira; izan ere, aipatutako arrazoiagatik bide-sarea bete-beterik dago praktikan. Horri, aurreikusitako trenbide zein errepide-azpiegiturak, horiek egiteko atalak aurrekontuetan inoiz jaso ez

direlako, ez direla egin gaineratuz gero, Gipuzkoa zeharkaldi amaiezin bihurtu da eta, aurreko fenomenoarekin batera, bide-sarea ezin beteago dago.

Lehenagoko planeamenduetan aurreikusita egon ez denez gero, lurralde-antolaketari dagokionez, egoera berriak desoreka estruktural handiak sortuko ditu Gipuzkoako lurraldean.

Ekonomi jarduerarekin zerikusia duen mugikortasunak lehenagoko hamarkadetan bezalatsu jarraitzen du, Europako beste lurralde eta herrialdeen aldean, poliki-poliki lehiakortasuna galtzen ari garela. Ez da handitu Pasaiako kanpoaldeko portua

Gipuzkoa oraindik ere, aireportu-zerbitzuei dagokienez, baldintza kaskarretan dago eta inguru geografikoko 5 aireporturen mendean dago.

3. Ekipamendu handien sistema.

Kudeaketa publikorako eredia “objektuetan” zentratzen da eta ez prozesuetan. Horrek administrazioan isolatutako departamentuak egotea dakar. Horrela, herrialdeko departamentuak ez du nekazaritza zein kultura eta kirol departamentua programatzen ari denaren berri. Kudeaketa-eredu hori dago indarrean beste erakunde batzuek beren proiektuen bidez lurraldean esku hartzen dutenean ere. Horren guztiaren ondorioz ez dago lurralde historiko mugakideekin egindako kultura, hezkuntza eta osasun-alorretako ekipamenduen plan integralik.

4. Ingurumenaren politika.

Etengabe handitzeko eredu honetan, zerbaitek ingurumenean duen eragina zein den jakiteko egiten diren azterlanak makillaje-ekintza hutsak dira. Bien bitartean, errealitateak erakusten du ekosistema naturalak edo erdi-naturalak eta natur paisaia, oro har, eta baserriari lotua, bereziki, galtzen ari direla. Okupazio hori Gipuzkoako lurraldea agortzen ari dela erakusten digun beste adibide bat da.



Erronka: Lurrealdea

Hausnarketa taldea

- **Xabier Unzurrunzaga** (Koordinatzailea)
- **Alfredo Garcia Ramos**
- **Antón Lopez Aberasturi**. EHU-UPV
- **Asier Acuriola**
- **Fernando Saez**
- **Jorge Askasibar**. GFA-ko Nekazaritza Departamentua
- **Jose Maria Aramburu**. GFA-ko Obra Hidraulikoak eta Hirigintza
- **Jose Maria Uria**
- **Jose Ramon Estomba**
- **José Ramón Beloki**. GFA-ko Ekonomia eta Turismoko Departamentua
- **Josu Arrizabalaga**
- **Julio Azkargorta**. Abokatua
- **Luis Maria Oyarbide**. GFA-ko Obra Hidraulikoak eta Hirigintza
- **Mikel Arteaga**. ENBA
- **Pello Urkidi**. EHU-UPV
- **Sabin Irulegi**. GFA-ko Nekazaritza Diputatu ohia
- **Ane Bustinduy** (G2020 Idazkaritza Teknikoa)



Gobernatzea Erronkaren minieszenategiak

Koordinatzaile-Idazlea: Mariano Ferrer



ERRONKARAKO MINIESZENATEGIEN AZALPENA: GOBERNATZEA

Sarrera.

Bost izan dira 2020rako Gipuzkoako gobernatzearen erronkarako aztertu diren egoerak. Hartara, ekainaren 28an eta 29an izandako bileran ateratako ondorioak eta taldeari norbanakoek egindako ekarpenak kontuan hartu dira lanerako.

Beste alde batetik, lantaldeak Europar Batasunean gobernatzearen inguruan egindako hausnarketa erreferentetzat izan duela aipatu behar da. Hona hemen Europar Batasuneko hausnarketa:

Gobernatzearen ideia Europar Batasunaren helburu estrategikoa da egun eta zenbait alderdik bat egiteak sortu da. Hona hemen faktoreak:

- Alde batetik, norbanakoa erkidegoaren gaitetik egoteak, gaur egungo gizartearen konplexutasunak eta nagusi ziren ordenari eta balioei aurre egiteak zalantzan jarri zuten XX. mendearen bukaerako gizartera erregimen demokratikoa egokiturik egotea. Nolabait esan genezake, gizarte garatuei tradiziozko kudeaketa publikotik modu egokian erantzun ezinean, gizarteak alde egiten dionaz ohartu egiten dela boterea.
- Beste alde batetik, bere funtzionamenduaren prozesu iluna eta bere erakundearen defizit demokratikoa direla eta, herritarrak urruntzen ari dela ikusten du Europar Batasunak. Horiek horrela, Europa eta herritarrak lotzen saiatzeko, herritarrek Europar Batasunari ematen dizkioten ahalmenak nola erabiltzen dituen berrikusi beharraz ohartzen da Europar Batasuna.
- Herritarren problemei erantzun diezaien demokrazia onratua eta eraginkorra aldarrikatzen eta eskatzen duten nazioarteko korranteak.

Europar Batasunaren liburu zuriaren oinarria den LeBessis eta Paterson-en “Developing new modes of governance” lanean gobernamendu kontzeptuaren bost osagai jasotzen dira. Honako hauek, hain zuzen:

- Europar Batasunaren zuzendaritzan herriari ahots gehiago ematea.
- Erakundeek gardentasun eta eraginkortasun handiagoaz lan egitea lortzea.
- Europar Batasunean kide gehiago sartzeak planteatzen dituen beharretara egokitzea erakundeak.
- Europar Batasunean, gobernu maila ezberdinak elkartzeko modu berriak sortzea.

- Europar Batasunak gobernamendu globalerako bere-berea den ekarpena egitea bermatzea.

Europako gobernatzeari buruzko liburu zuriak “governamendu oneko” bost printzipioak jasotzen dituen kontzeptua bere egiten du. Horiek, batez ere, irekitze, parte-hartzearen, erantzukizunaren, eraginkortasunaren eta koherentziaren ikuspuntutik boterearen erabileran eragina duten arauak, prozesuak eta jokamoldeak dira.

Horren azpian dagoen filosofiarekin askoz ere kritikoagoak diren gobernatzearen modari buruzko beste ikuspuntu batzuk hemen jasoko ez bagenitu errealitatearen aurrean begiak ixten egongo ginateke.

Trilateralak establishment akademikoko hiru adituri erregimen akademikoak gobernagaitz egiten duten disfuntzioak aztertzeke agindutako lanetan (“Informe sobre la gobernabilidad de las democracias”, NY Univ. 1975) barna abiatzen da kontzeptuaren jatorriaren bila José Vidal Beneyto. Tesiaren arabera, tradiziozko kudeaketa publikoak ezin dio erantzun egungo gizarte-egituraren konplexutasunari. Proposatutako konponbidea herritarren parte-hartzea gutxitzea, gizartearen gidaritza teknifikatzea eta gidaritza hori gizarte-eragileen (enpresak, elkarteak, interes-taldeak) eta erakunde gutxi batzuen esku uztea da, hauen elkarrekintzek antagonismoak hobeto bat etortzea ahalbidetuko dutela. Bestela esanda: gobernatzea hitzak denotatiboki gobernatzeko ekintza sinplea esan nahi badu ere, konnotatiboki jarduera hori estatuaren boteretik urrun eta enpresen boteretik hurbil egon behar duela azpimarratzen du.

Aginte publikoen ordeztasun, ekonomia ez ezik, gizartea ere erregulatzeko elementutzat merkatua jartzen duen eta politika alboratzen duen proposamen horri bere abal publikoa emateari sozialdemokraziak uko egin diola dio Vidal-Beneytok.

Bernard Cassen-ek (“Le piège de la gouvernance” LMD, 2001eko ekaina) ere mesfidantza beraz hitz egiten du kontzeptuaz (“ez da hitz sinple bat, eraikuntza ideologiko baten egitura egiten duten elementuetako bat baizik”), eta gobernatzeari buruzko liburu zuriak inplikazio itzelak dituela irizten dio: “Dakigunez, demokrazia ordezkatzaillearen egungo konstituzio-tankerak zalantzan jartzen ditu erabat eta erabaki politikoaren benetako pribatizazioa da”. CNRSeko ikerketarako zuzendariaren hitzetan, gutxienezko estatu-politikarako tresna ideologikoa da”. Eta bukatzeko gizarte zibila aipatzen dutenean buruan dutena “estatuari kontrajarritz Hegelek definitzen zuen moduan interes partikularren eremua” dela eta gizarte-eragileekiko elkarriketarako deiekin jokatzeko modua legitimatu nahi dutela dio.



Aldundiak gobernatzearen kontzeptua jasotzen duenean, izan ditzakeen ezkutuko asmoei (merkatutik eta merkatuarentzat gobernatzeara) baino gehiago, kontzeptu berri honek “prima facie” planteatzen dituen asmo onei (demokrazia hobetzea eta boterea erabiltzea eraginkorragoa eta gizatiarragoa izatea) begiratzen diela uste dugu. Hortaz, 2020rako izan daitezkeen bost mikroeszenategi zirriboratu ditugu gobernatzearen kontzeptua horietan garatzeko.

Gobernamendurako mikroeszenategiak.

Egoerarako oinarrizko testuak egiteko orduan, lantaldean egon diren edo dauden sentsibiltate ezberdinak jaso nahi izan dira. Sentsibiltate horiek gobernatzearen erronka aztertzeke ikuspuntu ezberdinak egotea ekarri dute.

Lantaldeko kide batzuentzat Gipuzkoan gobernatzearen egoerak planteatzeko oinarrizko elementua gobernatua izango dena zein motatako herritarra izango den jakitea. Hau da, jarrera pasiboak ala aktiboak dituen herritarra den, jarrera konprometituak dituen herritarra den, horrelakoak izatekotan, norbanakoaren mailan dituen ala ez, maila kolektiboan elkartasuna agertzen duen herritarra den ala baztertzaila eta intolerantea den ala integratzailea den, herritarrak kultura anitzekoak diren ala ez, eta abar.

Lantaldeko beste kide batzuentzat gobernamendurako funtsezko elementua gizarte neoliberal batean erakundeek maniobratzeko izango duten margena da. Eredu ekonomikoa da, beraz, gidaritzako ardatza eta honetan edonora helduta dena kontrolatzen duten talde multinazional handien boterea da kontuan hartu beharreko elementurik funtsezkoena. Hortik sortzen dira zenbait hipotesi, zerbitzurik gehienak pribatizatu egingo direla diotenak, segurtasuna gorantz joango den balioa izango dela diotenak eta aberatsa ondo eta pobrea alienatuta (komunikabideak, kontsumo materiala,...) bizi direneko bitariko gizartea irudikatzen dutenak.

Hirugarren perspektiba batetik gobernatzearen egoerak irudikatzeke orduan garrantzia izango dugun gobernatzeke markoari ematea da; hau da, Euskadi independente, Euskadi autonomiadun, Euskadi federal batean edo subjektu politikoa izango ez den Euskadi batean, nolako Euskadin egongo garen, Espainia birfundatuta ziklo autonomikoa amaitutzat joz gero. Testuinguru honetan ETak jarraituko duen ala ez, eta ez badu jarraitzen, nola desagertu den (polizialki garaitua, sozialki garaitua edo bere errebindikazioak eta aldarrikapenak agenda politikoetan sartuta erakundearen jarduera bertan behera uztea erabaki duten kideek). Horixe da gobernamendurako oinarrizko elementua perspektiba honetatik.



Europa mailan konpontzeko bidean - (1. mikroeszenategia).

- Europaren babespean euskal gatazka konpontzeko bidean (erregioak).
- Gobernuaren egungo egiturari eusten zaio Gipuzkoan.
- Gizarte itxaropentsua.
- Gizarte-haustura txikiagoa.

2010. urtean Europar Batasunak euskal auziari amaiera ematea erabaki du. Estatuarekin itun berri bat egitea xede duen prozesu bati babeska ematen dio. Oraindik ez dago helmuga erabakita, baina egungo markoa gainditzea (europar erregio moduan edo beste bide batetik) aurreikusita dago eta erabakitzeko euskal eremua ontzat ematen du.

Europa estatuen eta erregioen inguruan ari da antolatzen, erregioek gero eta protagonismo handiagoa dute eta estatuak ahultzen ari dira pixkanaka-pixkanaka. Erregioen artean aliantzak egiten dira, geografikoki hurbil daudelako edo interes erkideak dituztelako; eta hori Europako arauak erregioen integrazioarako bide ematen dutelako.

Zerga-alorreko foru-ahalmenari eutsi egin zaio, baina Europarekin bat etorri behararen baldintzapean; hau da, neurri handi batean zerga-tipo ezgarriak bateratuta. Gipuzkoak dirua biltzeko eskumenak ditu, honetan udalen partaidetza (diru-bilketan zein kudeaketan) handiagoa izanik.

Gipuzkoan gobernuaren egungo egiturari eutsi egin zaio, baina Aldundia kudeaketa eta estrategia erkideen eta kudeaketa koordinatuen beharretara egokitu izan da. Udal autonomia zabaltzeko prozesu batek erakundeen arteko lankidetzaren behar du eta tresnak eskura jartzeko politika publikoetan gauzatzen da hori, eta ez hainbeste departamentuen burokraziapen.

Alderdi politikoen egungo eskemak jarraitzen du (abian jarritako prozesu politikoak indartuta), herritarren aurrean irekiago egoteko bilakatu badira ere. Aldi berean, alderdien jardueraren osagarriak diren eragile berriak eta parte hartzeko era berriak sortu dira. Administrazioak herritarren eskaerei horretarako beren-beregi diren mekanismoen bidez erantzuten die. Horretarako teknologia berrien ekarpena garrantzitsua da eta horrela herritarrei informazio handiagoa eta erabakietan parte-hartzea ahalbidetzen da.



Etorkinen kopuruak handiak izanda ere, biztanleria gero eta zaharragoa da eta horren alde egiten du, gainera, hirugarren adineko pertsonen etorrerak. Hau gertatu da behin ETAre jarduera bertan behera utzita (ETAk onartu du prozesuari aurkera bat ematea eta “stand by” dago) eta hortaz normalizazio politikorako perspektibak zabaldu direlako.

Etorkinei harrera hobea egiteak, akordio politiko baterako itxaropenak eta parte hartzeko modu berriek batera gizarte-haustura txikiagoa izatea eragiten dute eta elkartasun-sareak garatuago daude. Horrek guztiak ahalbidetzen du herritartasun-identitatean oinarritutako kultur proiektu baterantz pausuak ematea eta horretan ezberdintasun edo faktore bereizgarriek galtzen dute izan duten erabatekotasuna.



Estatuak indartu egiten dira - (2. mikroeszenategia).

- Europak atzera egiten du.
- Autonomiaren garapena blokeatuta geratzen da.
- Herritar pasiboak zenbait asaldura-gunerekin.
- Tentsioa gizartean proiektu ezberdinak direla eta.

Europar Batasunean kide gehiago sartzeko prozesuaren konplexutasunak eta bertako segurtasunik ezaren giroak estatuak indartzearen alde egiten dute. Europa estatu nazional baterakoien konfederazio gisa antolatzen da, estatuetak parlamentuak dituela. Erregioen Europaren ideiak atzera egiten du.

Espanian Europako ideiak indarra galtzen du. Marko autonomikoak jarraitzen du, baina geroko garapena aurreikusi gabe, autonomia-erkidegoak, Europarekin bat egitean oinarrituta zergen alorrean barne, pixkanaka-pixkanaka homologatzen joan dira kontzepzio neo-deszentralizatzaile bat indarrean dago eta. Euskal Herriaren berezitasunari aurre egiten zaio gero eta gehiago. Boterea estatuari dagokio eta honek eskumenak banatzen ditu menpeko aginte mailen artean.

Gipuzkoako marko instituzionalari eutsi zaio. Estatuak autonomiaren garapena blokeatu du eta foru-organoek horren aurrean hartutako defentsa-jarrerak kudeaketaren deszentralizazioa zaildu egiten du. Burokrazioak bere hartan jarraitzen du, baita funtzionarioen botereak ere (ez dago girorik aldaketak egiteko eta bizitza konplikatzeke). Departamentukako kudeaketak ere jarraitzen du eta, gainera, mendekotasun bertikal batean, Eusko Jaurlaritzaren egitura politikoaren menpean dago eta. Kudeaketa-marko honetan Aldundien alderdi “administratiboa” zabaltzen ari deneko prozesu batean gaude eta joera gutxienezko zerbitzu publikoak murriztea da. Hiritartasun-eskubideen egungo egoera ere ez da aldatu; hau da, eskubide osoko herritarrak bertakoak eta Europar Batasunekoak dira.

Gizarteak utzi egiten dio botereari administrazioa eramaten eta modu pasiboan onartzen du zerbitzu publikoen narriadura. Alderdi politikoaren sistemak ere bere hartan jarraitzen du, baina herritarren aldetiko partaidetza txikiagoa izanik eta elkarteak ahulago agertzen direla. Kudeaketa publikoak ez du urratsik ematen gardentasun handiagoa egoteko eta egindakoen kontuak emateko.



Egoera honek guztiak ezarritako status quo-ri aurre egiteko guneak sortzea ekartzen du eta, hortaz, gizartean haustura bat gertatzen da eta demokrazia ordezkatzailerak zalantzan jarrita hainbat intsumisio-tankera azaltzen dira. Gauzak dauden moduan jarraitzearen alde egiten duten edo kontinuista den komunikazio ofizialeko hedabideekin aurrez aurre erresistentzia-gune horiek beren informazioa emateko eta jasotzeko mekanismoak sortu dituzte herritarren ekimenaren eskutik.

Gizartean tentsio handiko garaia dugu, batetik, trinkoago baina lehen bezain zabaldua ez dagoen etnien oinarritutako identitate-sentimendua dago eta, bestetik, egoerara egokitzeko joera dago. Indarkeria politikoa gaizkoatu egiten da, bide polizialek problema gainditze aldera jotzen duen nazioarteko lankidetzaren dela eta, murriztu den arren. Bien bitartean, beste indarkeria-mota batzuk azaltzen dira eta zirkunstantzia horietan, herritarrei dagokienez, gizarte-kontrol handiagoa dago; eta hori gizartea bitan bereizirik agertzen delarik: batetik, beldurtutako sektore batek segurtasun-politika eraginkorragoak eskatzen ditu eta, bestetik, beste sektore batek aurre egiten dio status quo-ri.

Gipuzkoa kontserbadorea, ongizate-marko batean - (3. mikroeszenategia).

- Autonomiaren markoaren egonkortasuna.
- Aldundiaren kudeaketaren deszentralizazioa.
- Biztanleria zahartu egiten da eta zerbitzuak pribatizatu egiten dira.
- Herritarrak ez dira interesaturik azaltzen goi-mailako politikaren aurrean.

Europa, herrialde bakoitzaren tradizioaren arabera, estatuen eta erregioen inguruan antolatzen da eta, berdintasunak edo tartean, erregioen arteko aliantzak daude. Globalizazioaren eragina igartzen da Gipuzkoan erabaki estrategikoak hartzeko orduan; eta presio sektorialeko zenbait taldek duten gero eta eragin handiagoan islatzen da hori.

Autonomia egonkortzeko prozesu batean gaude eta herritarrak hasi dira dagoeneko gatazka politikotik paso egiten (ETAk ekintzak egiten ditu baina Dagoeneko ez du eragin nabarmenik sortzen). Estatutua pixkanaka-pixkanaka garatuz doa egoera egonkor batean, nahiz eta Euskal Herriaren konfigurazio berri baterako itxita ez egon.

Zerga-alorrak oraingo moduan jarraitzen du. Foru Aldundiak eskumenak modu deszentralizatu batean erabiltzen ditu, Gipuzkoako udalerrriak metropoli barrutiak direla. Aldundiak batez ere lurraldearen estrategia politikoei buruzko erabakiei eutsi die.

Antolaketa-modu horren ondorioz, kudeaketa eta estrategiak lurraldeko eragile guztienak dira, erkideak dira alegia. Aldundiaren barruan departamentuen kudeaketa koordinatu egiten da eta kanpoaldera begira; hau da, erakundeen arteko harremanei dagokienez, koordinazioaren kultura harreman asimetrikoan da nagusitzen dena.

Norbanakoen eskubideetan aurrera egin ahala, kolektiboei dagokienez, osasuna eta segurtasuna guztiontzako zerbitzu publikoak direla da indarrean dagoen kontzeptua. Hortaz, sektore publikoa indartzen da, zenbait zerbitzu pribatizatu arren.

Inmigrazio-egoera kontrolpean dago eta bizilagun eta herritar izatea pareko kontzeptuak dira eskubideen titularitateari dagokionez.

Demokraziak ordezkatzaileria izateari eusten dio eta, herritarren interesa txikiagoa denez gero, gizartearen axolagabetasunari galga ipintzeko parte hartzeko beste bide batzuk abian jartzeko ahaleginak egiten dira.

Murrizketa horrek eguneroko kudeaketako informazioari dagokionez, sekretismoaren alde egiten du.



Gipuzkoa zahartu da eta bitasunera jotzen du. Botere publikoa funtsezkoaz ari da eta kudeaketaren zati bat esku pribatuetan dago; horren ondorioz, gizarte-harremanak indibidualistagoak dira solidarioak baino.

Gizarte honen ezaugarria dugu, ongizate ekonomikoaren ondorioz, duen nolabaiteko pasibotasuna.

Gizartean zahartze maila handia dagoenez, belaunaldien arteko distantzia handia dago eta urteetan aurrera egindakoen kolektiboa indar handiz nagusitzen da. Identitateari dagokionez, gizarteak ez du zehaztuta proiektu bat eta horrek hiritartasunaren alderdiak indartzea dakar.

Indarkeria politikoaren eragina murriztuta, beste bortizkeria batzuen eragina azaltzen da eta, hortaz, gizarteak agintea erabiltzeko eskatu dio botereari, segurtasuna erantzukizun mistoa (publikoa eta pribatua) izanik.



Zikloaren bukaera. Globalizazioak bere mugekin topo egiten du - (4. mikroeszenategia).

- Europak erregioak arautu egiten ditu.
- Zerga-alorrean Europan bat etortzea.
- Alderdiak komunikabide-enpresak. Herritarrak urundu egiten dira.
- Bitariko gizartea.
- Indarkeria-modu berriak. Segurtasun-eskaera.

Europar Batasunaren legeek araupetutako erregioen eta estatuen inguruan antolatzen da Europa. Badago Euskal Herria barnean hartzen duen europar erregio bat eta horrek estatuarekiko gatazka diluitu egiten du.

Erregioen marko berri horrek Europa mailan bat etortze bat eskatzen du eta horrek aldarazten du zerga-alorreko gure autonomia.

Udalek eskumen maila altuagoa lortzen dute eta Aldundiak deszentralizaten du kudeaketa, erakundeen arteko adostasunaren bidezko gobernu-modu batez metropoli barrutiak indartu egiten direlarik.

Zerbitzu publiko gehienak pribatizatuak izan dira, azkenaldian ekonomia politikari nagusitu zaiolako. Teknokraziak agintzen du eta Aldundia neurri batean erosketen zentral bihurtzen ari da.

Eskubideen titularrak espainiarrak eta Europako Batasunekoak izango dira eta demokraziak nolabait jarraitzen du ordezkatzaileria izaten eta alderdien egungo sistema edukitzen. Gizartearen politikarekiko interesa gero eta txikiagoa da eta politikak gizarte-ekintzarako gero eta tresna gutxiago ditu. Alderdiak komunikabide-enpresa bihurtu dira eta herritarren partaidetza kontrolatuta dago.

Herritarrentzako informazio-bide tradizionalak hor jarraitzen dute; hala ere, badago kontraesan bat: alde batetik, informazioa jasotzea erraza da, baina, bestetik, zirkulazioan dagoen informazio-bolumena itzela izanik oso konplexua da informazioa ulertzea. Administrazioa eta herritarrak bereizirik daude (sekretismoa, desinformazioa).

Bizilagunek hiritartasun-jarrera pasiboa dute, administrazioari administratzen uzten diote eta beren kezkarik behinena ekonomiaren arloan ebazten da. Segurtasunarena da gailentzen diren balioetako bat eta hiritartasun-eskubidearen edo berdintasun-eskubidearen aurrean jarrera atzerakoiak azaltzen dira.



Etorkinak ez dira bertakotu edo integratu eta bitariko gizarte batean gaude, gero eta behar gehiago eta handiagoak dituen eta hala ere elkartasun-sare ahulagoak dituen gizarte baztertzaila eta indibidualista batean. Gizartearen zati bat egokituta eta ondo integratuta bizi da eta beste zati batek, ordea, zerbitzu-gizarte batean kalitate eskaseko behin-behineko enpleguen errealitatea jasan behar du.

Proiekturik gabeko gizarte honetan alderdi politikoek baino gehiago alderdi ekonomikoek neutralizatu dute ETA, baina beste bortizkeria-modu batzuk azaltzen dira, soziala, arrazari lotua, herritarrena eta, batez ere, indar handia duelako aipagarria da genero-bortizkeria, hautsitako gizarte batean ohikoa dena. Horrez gain, badira oraindik ere lehenagoko etapatik indarrean gelditu diren eta jardunean dauden hondar armatuak.

Herritarra protagonista - (5. mikroeszenategia).

- Manipulazio politikoarekin gogaituta dagoen gizartea.
- Autonomia eta mendekotasuna batera izaten ikasi duen gizartea.
- Bestea onartzeak lankidetzarako prest dagoen gizartea sortzen du, eskubideekin eta betebeharrekin.

Europa estatuaren eta erregioen inguruan antolatzen da. Estatutuak markatutako autonomia maila guztiz lortu da eta estatu federalarekin beste itun bat prestatzen ari da.

Gipuzkoak zerga-alorreko autonomia izaten jarraitzen du. Gipuzkoako gobernua metropoli barrutietan egituratzen da eta udal indartsuak ditu. Donostia-Baiona konurbazioa sendotu da eta erakundearen arteko lankidetzaren beharren arabera eta harreman-asimetriaren kontzeptupean antolatuta dago.

Herritarren eskubideak bizilagun guztientzat dira, jaioterria edo jatorria edozein izanik ere. Parte-hartzea sustatzen duen demokrazia indartu egiten da eta herritarren jarrera konprometitua eta aktiboak laguntzen du eragile berrien sorreran. Gauzak horrela, alderdien sistemak erantzun behar du, herritarrek beren informaziorako eskubidea galdatzen dute eta. Gizartea gogaituta dago komunikabideen manipulazioarekin eta, internet erabat orokortu dela eta, berek nahi duten informazioa bilatu eta sortzen dute herritarrek.

Orain arte iritzia sortzean indarra zuen botere politiko batetik dauden iritzia ordezkatu eta agertu nahi dituen botere politiko batera pasatu gara.

Gizarteak ordezkaritza kontrol handiagoa du, herritarrek interes handiagoa dutelako publikoarekiko eta beronen kudeaketarekiko.

Testuinguru honetan gizarteak duen ezaugarriak behinena dituen eskubideei eta betebeharrei dagozkien erantzukizun eta konpromiso mailak dira.

Gizarte honek jakin du belaunaldien arteko harreman ona bideratzen eta eguneroko errealitatearen zati diren etorkinekin modu harmoniatsuan bizitzen. Ezberdintasunak onartzen dituzten politikak gailentzen dira eta gizarte-justizia eta kideen integrazioa bilatzen dituen eredu hitzartu egiten da.

Gure identitate anitzak elkarrekin bizi dira, problemarik gabe, proiektu hiritarretan oinarrituta. Ez dago bereziki azpimarratu beharreko indarkeriarik, segurtasuna erantzukizun publikoari dagokio eta autoritarismoa eta gizarte-haustura kontrolpean daude. Beraz konfiantza duen gizarte batean bizi gara eta beronen lorpenik handienak bestea onartzea eta norberaren garapenean autonomia eta mendekotasuna batera



eramatea dira, baita, gizarte-harremanetan, gizonezkoen eta andrazkoen arteko hierarkizazioa gainditu izana ere.



Erronka: Gobernatzea

Hausnarketa taldea

- **Mariano Ferrer** (Koordinatzailea)
- **Ander Arcelus**. GFA-ko Diputatu Nagusiaren Gabinetea
- **Angel Abalde**
- **Antxon Lafont**
- **Carlos Trenor**
- **Carmen Diez**. EHU-UPV
- **Gurutz Jauregi**. EHU-UPV
- **Idoia Estornes**
- **Jesús Torquemada**
- **Jose Manuel Castells**. EHU-UPV
- **Jose M^a Aldanondo**. GFA-ko Ekonomia eta Turismoko Departamentua
- **José Ramón Beloki**. GFA-ko Ekonomia eta Turismoko Departamentua
- **Kiko Caballero**. EHU-UPV
- **Luisa Etxenike**
- **Luxio Ugarte**. Mondragon Unibertsitatea
- **Patxi Baztarrika**. GFA-ko Diputatu Nagusiaren Gabinetea
- **Sabin Ormazabal**
- **Ane Bustinduy** (G2020 Idazkaritza Teknikoa)



Gizarte zibila erronkaren minieszenategiak

Koordinatzaile-Idazlea: Martin Auzmendi



ERRONKARAKO MINIESZENATEGIEN AZALPENA: GIZARTE ZIBILA

Sarrera.

Gizarte zibilaren kontzeptu zabal batean gakoak izanik, identifikatutako faktoreen bilakaerarako hipotesietan oinarrituta, sei mikroeszenategi identifikatu ditugu. Jarraian azaltzen dugu lantaldean adostutako kontzeptu zabalak.

Gizarte zibilaren definizioa.

“Gipuzkoa 2020an” hausnarketarako gai izanik, gizarte zibiltzat haxe hartzen dugu: herritarren antolaketa eta herritarrek hala nahi izan dutelako eratutako egitura formalak edo informalak, aginte publikoetatik aparte eta autonomoa dena eta legezko arauen araberrako eta gizartearen ordenatzen duten printzipioekin bat etorritako jokabidea duena. Esfera publikoan, norbanako moduan zein kolektibo baten partaide izanik, esku hartzen duten pertsonak osatzen dute gizarte zibila eta, esku hartzen badute, beren interesak eta ideiak azaltzeko, informazioa trukatzeko, helburu erkideak lortzeko edota aginte publikoei beren eskaerak helarazteko da.

Funtsezko faktoreak:

- Demografia, zahartzea, mendekotasuna eta ikerkuntza.
- Balioak, jarrerak eta sinismenak.
- Marko politikoa.
- Indarkeria eta segurtasuna.
- Lana eta enplegua.
- Integrazio kulturala, kultur aniztasuna, kultur ondarea.
- Egitura ekonomikoa. Globalizazioa.
- Aberastasunaren banaketa.



Gizarte etsita - (1. mikroeszenategia).

1. Elementu nagusiak.

Mikroeszenategi honen ezaugarritzat jo genitzakeen elementurik behinenak honako hauek lirateke: **gogaituta egotea, frustrazioa eta etsipena**. Egoera honetan *merkatuaren hegemonia genuke gizartearekiko eta europarrak ginateke onerako eta txarrerako*.

Nagusitu denaren ideia arabera merkatua gailendu zaio gizarte zibilari eta globalizazio-prozesu horri aurre egiteko ez dago alternatibarik. Mikroeszenategi honetan gizartea gogaituta dago, etsita. Jendea ez dator bat egoerarekin eta ez dago pozik dagoenarekin baina nolabaiteko fatalismoa dago.

Beste helburu batzuk lortzeko gizartea ilusiona eta mugiaraz dezan ideiarik, proposamenik edo lidergorik ez dago.

2. Aurreikusitako prozesua eta honentzako oinarriak diren hipotesiak.

Definitutako mikroeszenategi horretara eraman gaitzakeen prozesua eta horrentzat oinarriak izango liratekeen hipotesiak honako hauek dira:

Globalizazio-prozesuak **gainerako europarrekin antz handiagoa edukitzea ekarriko du, bizimoduak eta pentsamoldeak homogeneoagoak eginda**. Une honetan berdintasun handiagorako ikusten dugun joerak aurrera egingo du eta, mikroeszenategi honetan, 2020. urtean gure gizarte zibilak **jokatzeko izango dituen modu nagusiak gure ingurukoek dituzten berak izango dira**.

Gipuzkoako biztanleria zahartzeak dakartzan zenbait problemari aurre egiteko atzerritik etorritako pertsonen kopuruak handiagoak izan dira eta etorkinen etorreran eragina izan dute pertsonen mendekotasun handiagoak eta honen ondorioz handitu den 3. adinekoentzako kanpoko zerbitzuen eskaerak.

Elkarbizitzako egituren aldaketek eta sortutako enpleguaren behin-behinekotasunak sistema ekonomikotik baztertuta dauden kolektibo jakin batzuetakoek etxebizitza eskuratzeko zailtasunak izaten jarraitzea eragin dute.

Ekonomi eta gizarte mailako problemak izango ditugu, eta gure ekonomia beste herrialdeetakoekin lehiatzeko zailtasunak ere bai. Ideia neoliberalen eraginez, **gaur egun ditugun gizarte-babeserako sistemak aldatuak izango dira.** Ildo beretik, lan-harremanen alorrean lanari buruzko legeak aldatzeko joerak aurrera egingo du eta **lan-munduan dauden arauak kentzeko joera handiagoa egongo da.**

Garapen teknikoaren eta garapen sozialaren erritmoak ezberdinak izango dira. Garapen teknikoak oso bizkor egingo du aurrera; garapen soziala, ordea, mantso-mantsoa izango da. Ezberdintasun horiek **segmentazio sozial handiagoa** izango duen gizarte bat ekar dezakete.

Langabeziarako eta erretiroetarako prestazio ekonomiko publikoak txikiagoak izango dira. Baztertuei ematen zaien arretari, aldiz, eutsiko zaio.

Neoliberalismoa, autoritarismoa eta kontrol sozial handiagoa ere zirriborrotzen ari garen mikroeszenategi honen ezaugarriak izango dira. Horiek, gainera, **“berezitasun propioen”, “eskubideen” eta “askatasunen”** kaltetan izango dira. Balio kolektiboen eta norbanakoen balioen arteko tentsioa areagotu egingo da.

Aurreko guztiak esan nahi du gizartean gailenduko den jarrera **korrante nagusiekin besterik gabe bat egitea** izango dela; hortaz, joera argia egongo da **“praktikoagoak”** izateko eta **“ez hain originalak”**. Iparra ahal den egonkortasunik handiena erdiesteia izango da.

Gizarte zibilean bizilagunen sektorerik dinamikoena emakumezkoena izango da. Ordaindutako lan-munduan sartzeko egun dagoen joerak aurrera egingo du. Prozesu horrek berekin ekarriko du aldi berean etxeko lanen eta arduren antolaketa-modua bestelakoa izateko joera. Datozen urteotan lana eta familia batera eramatea eta gizonezkoek ere bi ardura horiek batera eramateko erantzukizuna izatea aldaketa sozialik handienetako bat izango da. Planteatzen ari garen mikroeszenategi honetan zentzu horretan jauzi handia emango da.

Ez dugu ahaztu behar 2020. urtean 1995. urte inguruan jaiotakoak hasiko direla lan-merkatura sartzan eta lan-merkatuan dauden askoren bi gurasoak lanean jarraitzen dutela edo ordaindutako lanak egin dituztela.

Terrorismoak edo helburu politikoak dituen indarkeriak atzera egingo du baina guztiz desagertu gabe. Ez dute bitarteko operatibo gehiagorik. Gizartean babesa galtzeak baztertuak izateko arriskuan jarriko ditu eta birsortzeko ahalmen txikiagoa izango dute. Dena dela, presente egoteko adina pertsona izango dira. Ez dituzte ekintzak bertan behera utzi edo amore eman nahi.

Normalizazio politikoa oraindik ere gairiditzeke dagoen asignatura izango da eta horrek **marko juridiko-politikoaren inguruan tentsioak** sortzen jarraitzen du. Politikan ezgaitasun bat dago euskal alderdi politikoen artean sakoneko adostasun batera iristeko. Giro orokorrak eta ezgaitasun horrek **gizarte zibila eta politika bereiziago** egotea ekarriko dute.

Gogaituta egotea, frustrazioa eta etsipena nagusi diren azaldutako mikroeszenategi honetan gizarte zibilak erreakzionatzeko ahaleginak egiten ditu **gizarte-indarren arteko adostasunak bilatuz**. Ildo horretatik, badira korronteak balio berrien, bizimodu berrien, pentsamolde eta ekoizteko modu berrien bila abiatzea aldarrikatzen dutenak.

Aipatutakoaren ildotik, gizarte-babeseko sistema publikoen eta pribatuen osagarri, boluntarioen mugimendua indartuko da eta horretan gazteak protagonistak izango dira.

Lan-munduan, sindikatuak tartean, maila soziopolitikoan, tentsioak eta gatazkak egongo dira. Dena dela, egonkortasun maila oso handia izango da.

Gizarte pobretua - (2. mikroeszenategia).

1. Elementu nagusiak.

Mikroeszenategi honen ezaugarritzat jo genitzakeen elementurik behinenak honako hauek lirateke: **prestakuntzarik eza, ezberdintasuna, gatazka, gizarte-bazterketa, beldurra eta segurtasunik eza.** *Kohesiorik eza, terrorismoak edo helburu politikoak dituen indarkeriak jarraitzea eta ezberdintasunak handiagoak izatea* ere mikroeszenategi honen elementu osagarriak lirateke.

Aipatutako elementu horiek guztiek bat egiteak erreakzionatzeko zailtasun handiak izango lituzkeen gizarte zibil gaixo eta oso ahul baten mikroeszenategia ekarriko luke.

Emaitza **gizarte pobretua eta gainbehera-prozesu batean sartua** da, bere oneratzeko baliorik eta erreferenterik ez duena.

2. Aurreikusitako prozesua eta honentzako oinarriak diren hipotesiak.

Definitutako mikroeszenategi horretara eraman gaitzakeen prozesua eta horrentzat oinarriak izango liratekeen hipotesiak honako hauek dira:

Mikroeszenategi honetan enpresarien mundukoei txantajea eta estortsioa praktikatzan eta pertsonen eta ondasunen aurka atentatzen duen **terrorismoak jarraitzearekin batera**, beste egoera edo kausa batzuetan oinarria duten **bestelako indarkeriez egongo litzatekeen kezka handituko dela** dugu.

Bortizkeriak, zailtasunak zailtasun, jarraitu arren, ekimenerako nolabaiteko gaitasuna egon badago. Dena dela, gaitasun horrek badu horren guztiaren eragin negatiboa.

“Gatazka politikoa” konpontzeko ahaleginak egiten jarraitzen da, baina **desenkantu politikoa eta soziala** gero eta zabalduago dago, gizartean errota eta errealitate bihurtzeraino.

Globalizazio-prozesuan gure lurraldea **posizioak galtzen ari da apurka-apurka, ekonomiaren lehiakortasunari dagokionez.** Testuinguru honetan, **kapitalek eta pertsona kualifikatuek alde egiten dute.**

Aurrekoak badu eragin zuzena enpleguan eta gizarte-babeseko sistemen iraunaraztean. **Behin-behineko enplegua zabalduz doa eta zailtasun handiak** daude **gizarte-babesean lortutako maileri eusteko.**

Biztanleria zahartzeak eta babes-sistemei eusteko zailtasunek **belaunaldien artekoek elkarri laguntzeko joera hausteko arriskua** sortzen dute.

Babes-sistemei eusteko zailtasunak batez ere **adineko pertsonentzako** (3. adina??) **zerbitzuetan** agertzen dira nabariaren.

Dena dela, **emakumezkoen enplegu-tasa erlatiboak hobeak dira**. Ordaindutako lan-munduan andrazkoak sartzeko oraingo joerak aurrera egiten du. Prozesu horrek berekin ekarriko du aldi berean etxeko lanen eta arduren antolaketa-modua bestelakoa izateko joera. Datozen urteotan lana eta familia batera eramatea eta gizonetzkoek ere bi ardura horiek batera eramateko erantzukizuna izatea aldaketa sozialik handienetako bat izango da.

Pobretzea gauzatzen den mikroeszenategi honetan **joera handia dago kontsumismorako**.

Planteatzen ari garen mikroeszenategi honetan, gainera, **gizarte-bazterketarako arriskuak handiagoak** liriateke, zalantzarik gabe.

Era berean, **bi mailatako gizarte** bat agertzen hasia da, elkartasunik eza handia izanik eta **ghettoak sortzeko arriskuak oso handiak** direla.

Etorkizunaren aurrean dagoen zalantza areagotu egiten da eta **aldaketaren aurrean beldurra** dago, baita **arriskutan jartzea dakarten egoerei aurre egiteko** ere.

Arestian aipatutakoaren ondorioz, **segurtasuna dela eta, kezka handia** dago. Kezka hori terrorismoak bere hartan jarraitzetik eta, baztertzeko eta ghettoak sortzeko beste egoera batzuk direla eta, sortutako beste indarkeria-moten ugaritzetik eta haren erabilpenetik letorke.

Dena dela, mikroeszenategi honetan **balio kolektiboen eta norbanakoen balioen arteko tentsioak** jarraituko du. Segur aski, indibidualismoaren aldeko joerak indartuko dira, balio kolektiboen eta elkartasunaren kaltetan.

Halaber, **balio laikoen eta balio erlijiosoen arteko tentsioa** ere egongo litzateke. **Erljioak**, era berean, **balioak transmititzeko alternatibarik ez duen faktore moduan pisua galduko luke**.

Globalizazioaren ondorioz, bizitzaren eta kulturaren arauak homogeenago egingo liriateke eta bizilagun askok kultura nagusiaren erregelak beren egingo litzukete; horrek hizkuntzen arteko eta kulturen arteko gatazkek jarraitzea ahalbideatuko luke.

Labur esanda, mikroeszenategi honetan kohesiorik eza, terrorismoak edo helburu politikoak dituen indarkeriak jarraitzea, lurraldeak ekonomia-alorrean pisua galtzea, ezberdintasunak handiagoak izatea eta erreakzionatzeko erreferenterik ez izatea nagusitzen dira.

Mikroeszenategi honen eta aurrekoaren arteko ezberdintasunik funtsezkoena hau da: **gizarte etsian**, etsipenak etsipen, izan, bada bizi-tonu bat eta **gizarte pobretuan**, aldiz, gainbeherako prozesu bat dago, etorkizunerako perspektibarik gabea.

Gizarte ekonomikoki garatua baina sozialki tentsioak dituena - (3. mikroeszenategia).

1. Elementu nagusiak.

Mikroeszenategi honen ezaugarritzat jo genitzakeen elementuetarik behinena **globalizazioan instalatutako** gizartea izatea, **garapen ekonomiko indartsua** aurrera ateratzeko gai dena baina gero eta *ezberdintasun sozial handiagoak* sortzen dituena izatea da. Hain zuzen ere, azaltzen ari garen mikroeszenategi honen ereduaren ondorioetako bat **ezberdintasun sozial handiak** egotea da.

Garapen ekonomikoaren maila handian eta ezberdintasun sozial handietan oinarritutako ereduak Europako gizartearen ezaugarria den gizarte-ongizatearen eredutik urrunaraziko gintuzke eta amerikar eredura hurbilaraziko.

2. Aurreikusitako prozesua eta honentzako oinarriak diren hipotesiak.

Definitutako mikroeszenategi horretara eraman gaitzakeen prozesua eta horrentzat oinarriak izango liratekeen hipotesiak honako hauek dira:

Globalizazio ekonomikoari loturiko balioen alde egiten da. Politika ekonomikoa eta soziala eredu liberalaren dogmetan oinarritzen dira, merkatuak eta kapitalen mugimenduak erabat liberalizatuta daudela, trabarik gabe alegia. Gainerako gai guztiak aipatutako printzipio horien menpean geratzen dira.

Lan-harremanetan malgutasun handiagoa dago. Horrek norbanakoei, banan-banan hartuta, dagozkien arauak indartzea eta, aldi berean, araupetze kolektiboak indarra galtzea ekarriko du.

Enplegu egonkorren (ongi ordainduak) eta behin-behineko enpleguen arteko bereizketa handiagoa egiteko joerak jarraitzen du eta egoera honetan egoeraren beraren elementu estruktural bihurtzen da.

Azaldu ditugun printzipioetan oinarritutako politika ekonomikoak eta politika sozialak **ezberdintasunak handiagoak** izatea dakarte berekin.

Helburu politikoak dituen indarkeria desagertzen da jarduera praktikatzeko ibilbideak bertan behera utzi edo amore ematen dutelako eta, hala ere, desenkontuaren eta blokeo politikoaren egoerak jarraitzen du eta txarrera egiten du, gainera, gizarte zibilaren eta politikaren arteko bereizketagatik.

Ezberdintasun sozialei loturiko beste indarkeria-mota batzuk azaltzen dira eta **gero eta garrantzi handiagoa hartzen dute**. Indar sozialak adostasun batera heltzen saiatu arren, ez dute lortzen.

Indibidualismorako eta elkartasunik ezerako joera areagotu egiten da.

Arestian azaldutako ideia nagusien testuinguruan, **kontsumismoa** ere mikroeszenategi honetan egongo liratekeen errealitateetatik aipatu beharreko beste bat litzateke.

Andrazkoen okupazio-tasak Europar Batasunekoan parean egongo lirateke.

Aurreko guztiak **elkarbizitzako egituretara aldaketa sakonak** ekarriko ditu. Aldaketak, gehien bat, familian gertatuko dira. Beste elkarbizitza-unitateek problema gutxiago izango dituzte, azaltzen ari garen mikroeszenategi honetan pixkanaka-pixkanaka garatuko dira eta.

Bizilagunen kopuruaren bilakaerari dagokionez, bizilagun-kopurua asko ez dela handituko aurreikusitako arren, **etxebizitza lortzeko zailtasunek jarraituko dute**.

Mikroeszenategi honen eta lehenago azaldutako bien artean ezberdintasunik aipagarriena honako hau da: oraingo honetan ez gaude gizarte etsian edo pobretuan, baizik eta gehienek garapen ekonomiko handirako eredia onartu egiten duten gizarte batean; hala ere, honetan ezberdintasun sozialak oso handiak dira.

Bizitza pertsonala, soziala eta profesionala batera eramatea ahalbidetzen duen gizartea - (4. mikroeszenategia).

1. Elementu nagusiak.

Mikroeszenategi honen faktorerik nagusiena dagoen **gizarte-eredu orekatua** da, **berdintasunezko** gizartearen alde egiten duen eredia alegia.

Berdintasunezko gizartearen alde egiten duen eredu orekatu hori **bizitza pertsonala, soziala eta profesionala batera eraman** ahal izatean oinarrituko litzateke.

2. Aurreikusitako prozesua eta honentzako oinarriak diren hipotesiak.

Definitutako mikroeszenategi horretara eraman gaitzakeen prozesua eta horrentzat oinarriak izango liratekeen hipotesiak honako hauek dira:

Ordaindutako lan-munduan sartzen diren emakumezkoak gero eta gehiago izango dira datozen urteotan. Belaunaldi berrietako andrazkoek ez dute planteatuko beren etorkizuna, ez bada ordaindutako enplegua edukita. Gizonezkoek normalizat jotzen dute errealitate hori.

2020. urtean litekeena da, **andrazkoen enplegu-tasak Europakoen parean egotea**. Euskal Autonomia Erkidegoan 2001. urtean jarduera-tasa % 53,4koa (% 65,5ekoa gizonezkoena eta 41,9koa emakumezkoena) izan da. Langabezia-tasa % 11,1ekoa, % 7,5ekoa gizonezkoena eta % 16,5ekoa emakumezkoena. Europar Batasunean jarduera-tasa 2001. urtean % 69koa izan da eta okupazio-tasa % 63,3koa.

Gipuzkoako lurraldean, jarduera-tasa, 2001. urtean, % 54,1ekoa izan da eta langabezia-tasa % 8,3koa.

1997ko azaroan izan zen Luxenburgoko goi-bileran hartutako akordioak garatuz Europako Kontseiluak emandako jarraibideen arabera, 2005.eko urtarrilean enplegu-tasa globalak % 67koa izan beharko luke eta emakumezkoen enplegu-tasak % 57koa. 2010. urterako dagoen helburua enplegu-tasa globala % 70ekoa eta emakumezkoen enplegu-tasa % 60tik gorakoa izatea da.

Hamarkada batean helburu horiek lortuz gero, 2020. urterako emakumezkoen enplegu-tasak gizonezkoen tasen parean egon daitezkeela pentsa daiteke.

Ordaindutako lan-munduan emakumezkoak sartzeko orokortzeak beste egoera berri bat ekarriko luke eta horretan **gizonezkoek eta andrazkoek autonomia ekonomiko nahikoa** izatea errealitatea izango da.

Aurrekoak berekin ekarriko du etxeko lanen antolaketa bestelakoa izatea eta, besteak beste, **etxeko ardurak banatu** egingo dira gizonezkoen eta andrazkoen artean. Aldaketa horietarako **gizarte-zerbitzuak** garatu eta etxeko lanak eta ardurak banatzeko modu berriari loturiko **beste zerbitzu berri batzuk** sortu beharko dira.

Prozesu horrek aldaketa kultural itzela ekarriko du berekin, emakumeak ordaindutako lan-munduan sartzea eta etxeko lanak eta ardurak banatzea **genero-roletan izango den aldaketa** onartu ahal izateko.

Azaldutako gizarte-ereduak **familiaren, bizitza pertsonalaren eta bizitza profesionalaren artean denbora modu orekatuan banatzea** ahalbidetuko luke.

Azaltzen ari garen mikroeszenategi honetan, **biztanleria zahartzearen** prozesuari **osasun eta gizarte-alorreko zerbitzu berriak** jarriz erantzungo litzaioke.

Aurrekoak bizitza guztian **bizi-kalitateari eta bizi mailei eusteko politika publikoak** aplikatzea onartuta egotea esan nahi du.

Halaber, aipatutakoaren ildotik, mikroeszenategi honetan definitutako eredu **belaunaldi berekoen arteko eta belaunaldi ezberdinetakoen arteko elkartasunean** oinarrituta egongo litzateke.

Azaldutako eredu horretan **baztertuak izateko arriskuak txikiagoak** izango lirateke. Horiek horrela, proportzionalak dira, batetik, arriskua txikiagoa izate hori eta, bestetik, autonomia ekonomikorik ez badute eta ordaindutako lanetik sortutako gizarte-aurrerapenerako sistematik ez badago, emakumeek baztertuak izateko duten arriskua.

Etxebizitza lortzeko problema konponduta legoke.

Elkarbizitza-unitate berriek garapen normalizatua izango dute, zeharo onartuak izateko eta familiarekin eskubide-berdintasunaren alorrean parekatzeko egingo diren legeen bidez.

Azaltzen ari garen mikroeszenategi honetako gizarte-eredu orekatua onartzeko kultura berria behar da eta **gizonezkoentzat eta andrazkoentzat lanaldi partziala** ere garatu beharko da. Gaur egun, gehien bat, emakumeak baliatzen dira lanaldi partzialeko modalitateaz.

Orientazio nazionalistako indar gehien artean akordio bat lortuta eta ereduari eusten dioten eta horren sostengu diren indar politikoen eta sozialen arteko elkarrizketa bideratuta, helburu politikoak dituen indarkeria modu garrantzitsuan gutxitzen da.

Berdintasunezko gizarte solidario batean egongo ginateke.

Gaur egun kezkarria den **genero-bortizkeria** guztiz desagertzea lortzen ez bada ere, **eragin txikiagoa du.**

Balioen alde egiten duen gizartea - (5. mikroeszenategia).

1. Elementu nagusiak.

Mikroeszenategi honen ezaugarritzat jo genitzakeen elementurik behinenak gehien-gehienak liratekeen **balioak, jarrerak eta sinismenak** lirateke.

Mikroeszenategi honetan, bere etorkizunaren jabe izan nahi duen gizarte baten motore moduan ari diren balioetan oinarritutako elkarbizitza eta gizarte-eredu baten alde egiten du gizarteak.

Balio batzuen alde egiteko eta proiektu erkide baten inguruan ados jartzeko gaitasunak **herri bat garela** erakusten du eta **horrek badu eragina**.

2. Aurreikusitako prozesua eta honentzako oinarriak diren hipotesiak.

Definitutako mikroeszenategi horretara eraman gaitzakeen prozesua eta horrentzat oinarriak izango liratekeen hipotesiak honako hauek dira:

Bere-bereak dituen irizpideen eta errotutako balio zehatzen arabera erregulatua izatea komeni zaiola onartzen duen gizarte bat dugu mikroeszenategi honetan.

Globalizazio-prozesuari dagokionez, prozesu barruan egoteko eta **nortasun propioaz** parte hartzeko erronkari eutsi egiten zaio; globalizazio-prozesuan, gizarte honek bere-bereak dituen elementuak prozesuak bere egin ditzan eredu batekin egoten ahaleginak egiten dira.

Gizartearen zereginari ekiteko jarreraren artean, aurreko mikroeszenategi batean aipatutako etsipenezko jarreraren parez pare, **asmo handiko jarrera** egongo litzateke.

Gizarte-ereduak zenbait balioen alde egiten du eta horietatik aipagarriena **elkartasun handiagoko** gizartea lortzea litzateke.

Azken urteetatik hona martxan dagoen zahartze-prozesuari aurre egiten zaio **gaztetze-prozesu** batekin, **jaiotzari trabak kenduta** eta gaztetzearen alde egiten duten **etorkinak onartzeko** politika batekin.

Etxebizitza duinak, prestakuntza eta enplegua eskaintzean oinarritutako inmigrazio-politikak **etorkinei finkatzen** lagunduko lieke.

Balio demokratikoak eta parte hartzeko kultura bere egiten ditu gizarteak, horietaz konbentziturata gainera. Sortzen diren gatazkak konpontzeko eta beste erabaki batzuk hartzeko tresnatzat ditu elkarrizketa eta etengabeko negoziazioa.

Elkarrizketaren eta herritarrek parte hartzeko kultura horren fruitu, indarkeria gutxitu da eta marko politikoari buruzko akordioak lortzeko elkarrizketa iraunkorreko prozesu bati eusten zaio.

Mikroeszenategi honetan elkartasunaren ikuspuntutik gizarte-politika guztien erregulazioa bertan egin ahalko litzateke. **Enplegu-politikak eremu propiotik kudeatuko lirateke eta lan-harremanek araupetze berezia izango lukete**, Europar Batasunaren eremutik zehaztutako politika orokorren marko barruan.

Ekonomiaren eremuan, ekonomia lehiakor baten egituraren alde egingo litzateke, pertsonak kezken erdigunean daudela. **Gizarte-ekonomiaren garapena** egitura horren ardatzetako bat izango litzateke.

Gizarte-politikan Ikerketa eta Garapenari (I+G) laguntzearen alde modu indartsuan egingo litzateke.

Hizkuntzen gaiari ematen zaion tratamenduan **hizkuntza-normalizazioa** sustatu egiten da **gizartea kohesionatzeko elementu moduan**.

Europar Batasunean dagoen **erregioen aldeko** joeraren markoan, **euskal euroerregio** bat egite aldera urratsak ematen dira eta horren sorreran Gipuzkoa motorea da. Euroerregio hori denen intereseko politikak erabakitzeke eta politika horiek kudeatzeko akordioen inguruan artikulatzen da.

Azaldutako egoerarentzat oinarriak diren hipotesien artean **gizartea laiko egitea** dago.

Gizarte irekia eta bizkorra - (6. mikroeszenategia).

1. Elementu nagusiak.

Mikroeszenategi honen ezaugarritzat jo genitzakeen elementurik behinenak **ilusioa, gizarte zibilak protagonismoa hartzea, gizarte-ongizatea eta elkartasuna** liratekeela uste dugu. Gizarte ireki batean gaude, Europar Batasunaren barruan dinamismo handia duen eta elkartasunean, integrazioan eta gizarte-kohesioan oinarritutako gizarte-eredu batez integrazio-bidean aurrera egiten duen gizarte batean gaude.

Gizarte-eredu hau ongizate-estatuko demokrazia sozialean sakontzearen ondorioa litzateke. Hazkunde ekonomikoko maila handia, enplegu beteko mikroeszenategia eta bizilagun guztientzat diren gizarte-babeseko sistemak dituen gizarte-eredu batez ari gara.

Eredu sozialdemokrata aurreratuko eredu baten markoan, **Europar Batasun kohezionatu batean ongizate maila handia** izango lukeen mikroeszenategi batean egongo ginateke.

2. Aurreikusitako prozesua eta honentzako oinarriak diren hipotesiak.

Definitutako mikroeszenategi horretara eraman gaitzakeen prozesua eta horrentzat oinarriak izango liratekeen hipotesiak honako hauek dira:

Lan-harremanen eta gizarte-ongizatearen alorrean eredu sozial demokratikoko eredu baten arabera Europar Batasunean garapen jakin bat jazotzen dela heltzen gara mikroeszenategi honetara.

Oso dinamikoa eta aktiboa izanik, **politika neoliberalari aurre eginez** politika ekonomikoetarako eta sozialetarako sozialdemokrata den gizarte zibil batean oinarritzen da eredu hau. **Gizarte zibilaren protagonismoa** mikroeszenategi honetarako funtsezko ardatzetako bat izango litzateke.

Mikroeszenategi honetan terrorismoa eta helburu politikoak dituen indarkeria dagoeneko desagertuta egongo lirateke. Neurri polizialek eta politikoez batera, jarduera horren protagonistak jarduera bertan behera uztera edo amore ematera eramango zituzten.

Halaber, **indar politikoaren eta sozialen arteko elkarrizketa** ereduaren sostenguetako bat litzateke mikroeszenategi honetan.

Denok bitzta guztian prestakuntza jaso ahal izatea sustatuko litzateke eta hori ereduaren funtsezko baldintzetako bat litzateke. Heziketari dagokionez, **eduki humanistagoa** izango luke. Labur esanda, ikasketa-planetan prestakuntza humanistari orain baino garrantzi handiagoa emango litzaiokie.

Balio erantsi handiko enpresa-egiturak garatuko lirateke, **ekonomian hirugarren sektoreak** askoz ere pisu handiagoa izango luke eta **zerbitzuak oso aurreratuak** izango lirateke. Hirugarren sektorearen ondoan sektore industrial moderno bat egongo litzateke, oso ongi dimentsionatua eta oso lehiakorra.

Euskara gizartean oso zabaldua, komunikazio arrunteko lotura da hirueledun den gizarte batean eta honetan zenbait kultura daude elkarren ondoan.

Ekonomiaren alorrean, **ekonomia sozialak** paper garrantzitsua izango luke. Orokorrean, enpresa-eredu guztiak partaidetza handiagoko kultura batean oinarrituta egongo dira.

Orokorrean, **administrazioaren eta organizazioen erabakietan partaidetza soziala luketen sistema berriak abian jartzea** legokioke eredu honi.

Aurrekoarekin bat etorrira, **Gipuzkoa lehiakor eta aberats** batean egongo ginateke.

Gizarte lehiakor eta aberats honetan **zerga-alorreko politika aktiboa** egongo litzateke **aberastasuna banatze aldera, gizarte solidarioa** egin ahal izateko.

Lan-orduak orain baino **gutxiago** izango lirateke eta **emakumezkoen jardueratasak Europakoekin parean** egongo lirateke.

Kontsumo-ereduek **kontsumitzaileak arduratsuagoak** izatea ekarriko dute. Kontsumoan trebatuago egongo gara, prestakuntza tartean, eta kontsumo-moduetan gehiago hartuko dira kontuan irizpide kualitatiboak. Orokorrean, **bizi-kalitate hobea** eskainiko lukeen mikroeszenategi batean egongo ginateke.

Etxebizitza-politikek bermatuko diete bizilagun guztiei etxebizitza egokia lortzea.

Mikroeszenategi honen inguruan erabiltzen diren hipotesietako baten arabera, zail hel gintezke mikroeszenategi honetara **biztanleria gaztetu** gabe. Azaldutako baldintza orokorrek ahalbidetuko lukete biztanleria gaztetze hori.

Aipatutakoa gorabehera, **lan-motaren araberako bereizketak, eskola-porrota, aldaketetara egokitu ezina, langabezia denbora luzea daramatenak** eta beste arrazoi batzuk tartean **gizartean baztertua izateko modu berriak** sortuko lirateke. Aurrea hartzeko politikak eta gizarte-babesekeo politikak aplikatuz arreta berezia eskaintzea eskatuko lukete problema horiek.



Erronka: Gizarte Zibila

Hausnarketa taldea

- **Martin Auzmendi** (Koordinatzailea)
- **Agustín Unzurrunzaga**. SOS Arrazakeria
- **Alfonso Gorroñogoitia**
- **Arantza Olaizola**. Caja Laboral
- **Edorta Azpiazu**. Donostiako Udaletxeko Ongizate Departamentua
- **Iñigo Oliveros**. GFA-ko Ekonomia eta Turismoko Departamentua
- **Javier Pradini**. EMAUS Fundazioa
- **Javier San Vicente**. EUSTAT
- **Jesus Mari Mujika**. Deustuko Unibertsitatea
- **Jon Iribar**. GFA-ko Gizarte Zerbitzuak
- **José Miguel Unanue**
- **José Ramón Beloki**. GFA-ko Ekonomia eta Turismoko Departamentua
- **Juan José Goenaga**
- **María Jesús Aramburu**. GFA-ko Kultura Departamentua
- **Patxi Sasigain**. CES
- **Santiago Eraso**. ARTELEKU
- **Teresa del Valle**. EHU-UPV
- **Txaro Arteaga**. EMAKUNDE E.J.
- **Mikel Irasuegi** (G2020 Idazkaritza Teknikoa)



Produktzio-sistema erronkaren minieszenategiak

Koordinatzailea-Idazlea: Antonio Cancelo



ERRONKARAKO MINIESZENATEGIEN AZALPENA: EKOIZPEN SISTEMA

Sarrera.

2002ko Gipuzkoarako aurreikusitako zenbait egoeraren nondik norakoak zehazteko gakotzat jotzen ditugun hainbat faktoreren eta eragileren hasierako zerrenda batetik abiatuta eta lantaldearen hausnarketa aberasgarria eginda, honako aldagai hauek aukeratu genituen:

1. Globalizazioa, internazionalizazioa.
2. Enpresa-kultura, management-a, balioak.
3. Berritze teknologikoa. Teknologia berriak.
4. Prestakuntza, jakintza.
5. Enpresa-ingurunea.
6. Gipuzkoako enpresen dimentsioa.
7. Emakumezkoak ekoizpen-sisteman sartzea.

Zazpi aldagai horien portaeraren arabera eta haien konbinazioa eginda, ondoren azaltzen ditugun honako mikroeszenategi hauek izan genitzake:



Gipuzkoa mundu globalizatu batean tratatuta - (1. mikroeszenategia).

Azken urteotan garapen ekonomikoaren identitate-ezaugarriak izan direnak sendotu eta areagotu egin dira eta globalizazioak garapen izugarria izan du. Horiek horrela, globalizazioaren arrakasta hain handia izanik, lehengo toki-merkatuak desagertu dira, merkatu global baten osagarri izateari dagokionean izan ezik.

Merkatuek eta lehiak ez dute mugarik eta ekonomia zeharo internazionalizatuta dago. Horrek orokorrean aberastasuna eta enplegua haztea ekarri du.

Denak garapenaren alde egiten duela ematen duen ingurune global honetan, Gipuzkoak ez du oraindik lortu bere lekua topatzea. Gipuzkoak presentzia-alorrean atzera egiten du eta, okerragoa dena, erabakitzeke ahalmenean ere atzera egiten du. Enpresen ehundura zatikatu historikoa ez da gai eskaeraren exigentzia berriei aurre egiteko. Horiek horrela, iraganean arrakastatsuak izan ziren enpresa asko kanpotarren esku daude eta horren ondorioz erabakitzeke guneak ere beste norabait eraman dituzte.

Gipuzkoar enpresariak ahalegin handiak egiten dituzte egokitzeko eta inguruneko zirkunstantzietara moldatuago egon daitezen enpresa-antolaketarako eredu berriak planteatzeko, baina ez dute langileen artean aldeko oihartzunik lortzen. Sindikatuek aldaketan aurkako jarrera aktiboak dituzte eta enpresa-sortzaileen kultura eta enpresa berrien sorrera eragozten dituzte.

Gizarteak, oro har, enpresez duen irudiak ere ez du aldaketak egiten laguntzen, enplegua sortzeko, aberastasuna sortzeko eta gizarte-kohesiorako egiten duten ekarpenaz ez baita jendea erabat ohartzen. Administrazioaren eta enpresen bideak paraleloak dira eta ekonomia globalean lehiatu ahal izateko beharrezko dimentsioa eduki dezaten enpresa-proiektuak garatzen lagun dezaten sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren planak ez dira abian jartzen.

Egindako ahaleginak ahalegin eta munduan izandako aldaketak aldaketa, mende erdia da terrorismoa hor dagoela eta, amaiera eman diezaion irteera aurreikusten ez dela, enpresa-ekimenez gogoa eta adorea kentzeko faktorea da.

Heziketak tradiziozko eskemari eusten dio eta oraindik ere ez du bere egin dagoeneko heziketaren kontzepzio zaharra dena, bizitzan guztian trebatzearena alegia. Enpresa-eredu berrietarantzko urratsik eman ez dela, enpresen barruan ezaguerak eta jakintza iragazgaitzak dira, ez dira ateratzen dauden lekutik, pertsona eta talde bakoitzak dakiena ondare indibiduala dela eta, besteei horren berri emanez gero, ondare hori galdu egiten duela iritzirik.



Gipuzkoak munduaren testuinguruan duen posizio teknologikoa erdi edo behe-mailakoa da eta, hortaz, lehiakortasuna prezioan oinarritzen da. Horiek horrela, zaila da, ezinezkoa ez bada, eskulanaren kostua merke-merkea izanik, merkatuan sartzen ari diren area geografiko berriekin lehian jardutea.

Gipuzkoako ekoizpen-ehundura, teknologikoki garapen eskasekoa izanik, berrikuntzak eta patenteak sortzeko ez da gai. Gizartearen, enpresen eta unibertsitateen artean ez dago harremanik eta beren ezaugarrietako bat berrikuntzetarako irekita ez egotea da.

Azkenik, emakumezkoak zailtasun eta traba askorekin ari dira lan-munduan sartzen eta andrazkoen jarduera-tasa gizonezkoenera hurbiltzeko aspalditik egon diren zailtasunek beren hartan jarraitzen dute.

Azaldutakoaren ondorioz, Gipuzkoa mundu mailako ekonomian posizioak galtzen ari da eta horrek, nahitaez, berekin dakartza ondorio negatiboak ongizate mailarentzat. Horrez gain, onenen edo eraginkorren erritmoari jarraitzeko gaitasunik ezaren jakinaren gainean egoteak larriagotu egiten du egoera.

Horrelako mikroeszenategi bat sinesgaitza badirudi ere, historiak erakusten dizkigu, aberatsak izan arren, ingurune positiboaz behar bezala baliatzeko beharrezko aldaketak egiteko gai izan ez diren erregio askoren adibideak. Adibideak estatu barruan zein nazioarte mailan topa daitezke.



Gipuzkoa ekonomia globalizatu trabatu batean trabatuta - (2. mikroeszenategia).

Mikroeszenategi hau aurrekotik bereizten duena ingurunearen eraldaketa sakona da eta honetan irekitzera jo beharrean ixtera jotzen da, betiko gaintututa zeudela zirudien estadioetara berriz ere bueltatuz eta merkatuen funtzionamendu autarkikora itzuliz.

Aurreko globalizazio-etapetan egitura politikoak ekonomikoetara egokitu ez zirela eta, estatuak boterea galtzeak mesfidantza sortu du klase politikoan, erabakitzeke orduan autonomia galdu baitute mundu mailako enpresa-pilaketa handien mesedetan.

Herritarren segurtasunik eza, inmigrazio gero eta handiagoak sortu duen aldaketa kulturala, identitate-ezaugarriak galtzea eta beste problema guztiak globalizazio-ardatzaren ondorioz dituela uste duen eta gero eta zaharragoa den gizarte baten kontzientzia gaineratu behar zaio mundu politikoa pozik ez egoteari.

Idealizatutako iragan batera itzultzea azkenean konsigna erkidea da. Horiek horrela, mugak itxi egiten dira, truke ekonomikoari eta finantza-arlokoari trabak ipintzen zaizkie berriz ere eta, labur esanda, estatu-nazioetara bueltatzen da.

Marko honetan, Gipuzkoako ekonomia itxi egiten da, eremua, gehien bat, espainiar estatura mugatuz. Esportazioak gero eta bakanagoak eta noizean behingoagoak dira.

Horrekin guztiarekin batera, ekoizpen-sistemaren beharrei erantzuteko beharrezko prestakuntza duten pertsonak aurkitzea gero eta zailagoa da, bilakaera demografikoaren eta lan-munduarekiko harremanak hobetu ez dituen eta eredu zaharretan geldi eta bere hartan itxita geratu den hezkuntza-sistemaren ondorioz.

Negatibotasun-tonu orokor honetan, hogeita hamar urte lehenago hasitako bitarteko lankidetzaren egitura batzuk sendotu egiten dira; hala nola, clusterrak edo enpresa-partzuergoak.

Paradoxa bada ere, iraganera itzultze honetan Gipuzkoako posizio erlatiboak ez du okerrera egiten, kanpoko lehiakortasunaren presioa desagertuta eta Gipuzkoako enpresarien tradiziozko bertute batzuei eutsita.



Gipuzkoarako mikroeszenategi joera positibokoa - (3. mikroeszenategia).

Globalizazioaren hazkunde etengabe baina leundua da Gipuzkoa dagoen markoaren ezaugarriak behinena; izan ere, talde kritiko indartsu eta globalizatuaren jokabideaz, globalizazioak onartu ditu zentzu humanoago eta solidarioagoa eman dioten zenbait zuzenketa.

Mundu mailako ekonomiak izaera irekia izaten jarraitzen du, baina ez da iraganean bezain baztertua eta mendearen hasieran nazioarte mailan leku bat eskatzen zuten area erregional handiak sendotu dira, lehiakortasun-plus baten ekarpena eginda, eta, besteak beste, Europaren ekialdeko, Magrebeko, Asiako eta Latinoamerikako herritarrei bizitzeko beste aukera batzuk eman zaizkie horrela.

Dagoen giro ona aprobetxatuz, gipuzkoar enpresa-ehundurak aurrera egiten du eta erregioen espezializazioak eskaintzen dizkion espazio berrietara egokitzen jakin du: Horrela bada, industriaren ehundura historikoa galdu da, maila teknologiko handiagoko jardueren mesedetan eta horrek balio erantsia handitzea eragin du.

Lurraldearen orografia berezia dela eta, espaziorik ezak lagundu du doiketa horretan, baita ingurumen-alarreko exigentzia berriek ere. Horrela bada, ekoizpen-jarduerak lurralde historikotik alde egin du beste kokaleku batzuk topatzeko.

Informazio eta komunikazio-teknologia aurreratuen erabilera orokorrak eskaintzen dituen aukeretan oinarrituta, sareko lana zabaldu egin da eta horrek lan-antolaketarako aldaketa handiak ekarri ditu, mugikortasuna erraztu eta tradiziozko enpresa-eredua zalantzan jarri du eta.

Enpresariaren mentalitatearen bilakaerak lehenagoko garaietan nagusi izan zen indibidualismoaren eta partzelazioaren estadioa gainditzea ahalbidetu du eta, fusioak edo beste figura batzuk direla medio, enpresen kontzentrazioak gero eta ugariagoak dira.

Bai Gipuzkoako gizartea, bai enpresa-mundua, konturatu dira jakintzak garapenean duen funtsezko rolaz eta, horiek horrela, urtez urte handituz doaz etengabe prestakuntzarako baliabideak. Prestakuntza hori trebetasun profesionalez harago doa eta jokoeretan, jarreretan eta balioetan sakondu egiten du, jakitea ez dela nahikoa eta nahi izatea ere beharrezkoa dela ohartuta eta bizitzan, oro har, eta baita lanean ere etika erkide bat izatea funtsezkoa dela konbentzita.



Enpresa-ereduetan aldaketa itzelik ez badago ere, prestakuntzatik, gogoetatik, irakurtzetik eta abarretatik datorren jakinduria beste guztiei ere helarazi beharra onartu egin da. Horiek horrela, enpresa guztiak antolatu dira barruan sortzen den ezaguera besteei ere helarazteko, sorlekutik ateratzeko eta, garrantzitsuagoa dena, aplikatzeko, egiten dena hobetzeko emaitza praktikoak eman ditzan.

Emakumezkoak lan-munduan sartzea errealitatea da gizarte honetan eta horrek enpresetan beste ikuspuntu batzuk, gauzak ikusteko beste modu batzuk, sartzea ahalbidetu du eta kultura aberatsagoa sortarazi, ñabarduraz beteriko eta balio berriak dituen kultura bat. Prozesu hori erraztu dute Gipuzkoako gizarteak, administrazioak eta herritarrek egindako ahaleginek, familiako bizitzaren ardurak eta lanaren erantzukizunak batera eramatea ahalbide dezaten jarrera-aldaketak egiteko eta horretan laguntzeko tresnak sortzeko egindako ahaleginek alegia; eta hori eskubide eta betebeharrak ditugula aldarrikatzen duen ikusmolde batetik.

Laburbiltzeko esan genezake mikroeszenategi honetan mundu mailako ekonomia ireki, lehiakor eta gizartearen kezkekiko sentibera denak bat egiten duela Gipuzkoako ekonomian emandako antzeko erantzunarekin. Azken honek, gauzak horrela, munduan duen ongizatearen posizio erlatiboa hobetzea lortzen du.



Gipuzkoarako mikroeszenategi joera negatibokoa - (4. mikroeszenategia).

Erregioen area handiak garapen ekonomikoaren protagonista bihurtzen dira, erregioen arteko loturak ahultzen dira eta herrialde guztiak saiatzen dira hurbilenekoekin loturak estutzen, urrunago daudenekiko loturen kaltetan. Europa egiteko aurrerapenak indartsu jarraitu du eta Errusiar Federazioa ere sartu da Europar Batasunean; baina horretarako, arlo ekonomikoan ez ezik, eredu politiko eta sozial berriak bilatzekoan ere ahalegin handiak egin behar izan dira.

Europako merkatu eskergak ezin pentsa zitezkeen aukerak ahalbidetzen ditu, baina Gipuzkoak ez du lortzen bere lekua aurkitzea. Hala ere, Europan egiten dituen inbertsioak gero eta handiagoak izateko joerak aurrera jarraitu du, batez ere, Europako ekialdean. Aldi berean, kontrako fenomeno ere gertatzen da, lurralde historikora Europako ekialdetik kapital asko etorri dira eta.

1. eta 2. egoeretan azaldutako egoera negatiboak, posizio teknologikoari, berrikuntzak eta patenteak sortzeko gaitasunik ezari, gizartean dagoen enpresei buruzko balorazioari eta hezkuntza eta prestakuntzaren alorrean dagoen itxikeriari buruzkoak gertatzen dira 4. mikroeszenategi honetan ere.

Itxaropenerako bidean langileek partaidetza maila gero eta handiagoak izan ditzaten enpresa-eredu berrien alde egiteko hartu duten kontzientzia dago. Horrek, enpresek arrakasta lortzeko, eragile guztiek konpromiso handiagoa hartuko dutela pentsarazten digu. Dena dela, enpresariak ez dituzte proposamen horiek onartzen eta sindikatuek berek ere zalantzak dituzte laguntza emateko orduan.

Emakumeak lan-merkatuan indar handiz sartuta, Europako iparraldeko tradiziozko tasen parekoak erdietsi dira, baina, erakundeen eta gizartearen babesik ezean, norbanakoen ahaleginei esker lortu da eta horrek desorekak sortu ditu familiako bizitza eta lana batera eramaterakoan, Gipuzkoako gizartearen funtzionamenduan ere ondorio nabariak izanik.

Europako merkatu zabal eta sendotuaren aurrean erantzun egokiaren bilaketan, ekoizpen-sistemaren erantzun globalak ahulezia argiak erakusten ditu, itxaropenerako bidea irekitzen duten beste seinale batzuen ondoan.



Gipuzkoak aurrera egiten du mundu mailako ekonomia erlatiboki gelditu eta lokalista batean - (5. mikroeszenategia).

2. egoeran azaldu bezala, globalizazioa gelditu ez ezik, praktikoki desagertu ere egin da, eredu autarkikoetara itzulita eta mundu mailako merkataritzaren murrizketa handi handia jazota.

Europar Batasunean hogeit hamar herrialde sartu izanak ekarri dituen problemek estaturik aberatsenetakoa herritarren presioa handiagoa izatea eragin dute, egindakoari buelta eman eta babeserako tresna teorikotzat jota mugak berriz ere altxatzeraino. Mugek erabat eragozten dituzte truke komertzialak.

Ingurune erasokor horretan Gipuzkoako gizartearen balio tradizionalak indarra hartzen dute eta, tresna modernoak laguntzaz, eskura dituen baliabideak eraginkortasunez erabilita posizio erlatiboa hobetu duen eta hobera doan Gipuzkoa bat egiteko gaitasuna izan dute balio tradizional horiek.

Enpresariak eta langileak, oraino honetan elkarren eskutik, enpresa-eredu berriak prestatzen dituzte, aurrez aurre egotearen ordez lankidetzaz jartzen duten eta partaidetza sustatzen duten sistemekin. Eredu horiek orokortu egiten dira eta sindikatuen organizazioak gaituta geratzen dira, horren ondorioz eragina galtzen dute.

Gizartearen, enpresaren eta unibertsitatearen arteko loturan eta kohesioan du sarrera iraganean inoiz ezagutu ez zen dinamika batek, dena mugimenduan eta irekia dagoela. Berrikuntza enpresen garapenera ardatz bihurtzen da. Horiek horrela, mundu mailako testuinguruan posizio teknologiko ertain goikoa lortzen dugu.

Enpresa gizartearen kohesiorako elementu gisa baloratu egiten da, aberastasuna eta enplegua sortzeko duen rol positiboa ere onartu egiten zaiola. Publikoak eta pribatuak bat egiteko mekanismoak daude eta, alde bakoitzak bere autonomiari helduta, elkarlanaren bidez helburu handikoak diren enpresa-proiektuak eta ikerketa-proiektuak lortzea optimizatzen dute.

Azpiegiturak, arlo materialean ez ezik, informazio eta jakintza-alorrean ere, enpresa berriak sortzeko eta daudenak hobetzeko euskarri moduan garatzen dira.

Gipuzkoan terrorismoa desagertu da eta horrek ordura arte estututa egon diren energia asko askatzen ditu, jakintzak eta ezaguerekin alde egitea eragozten du eta kanporatutako



jende argia eta bizkorra itzuli ere egiten da, orain jaioterrira bueltatzeko giro egokia dute eta.

Enpresariak enpresen arteko lankidetzak banan-banan dituzten ahuleziak gainditzeko formula ona dela ohartu dira eta horrek enpresa-taldeak ugaritzea ahalbidetu du. Enpresa-talde horiek beste gaitasun batzuk eta garapenean aurrera egiteko aukera hobeak ematen dizkiete enpresei.

Ahalmen guztia azalera ekartzeko mugitu eta askatasun-giroan ahalmen horri ateratzen utziz gero, aurkako inguruneetan ere gizarte batek erantzuteko eduki dezakeen gaitasuna erakusten du mikroeszenategi honek.



Gipuzkoak aurrera egiten du ekonomia globalizatu batean - (6. mikroeszenategia).

Mikroeszenategi hau 5. egoeran azaldutako bera da, gertatzen deneko ingurunean izan ezik. Ekonomia ireki eta global batean gaude berriz ere, trukeak egiteko trabarik gabe eta horrek mundu mailan hazkunde handiagoa ez ezik, merkatuen truke eta lehia handiagoa ere ahalbidetzen du.

Gipuzkoako enpresa-ehundurak martxan jartzen ditu bere energia eta indar guztiak, makromerkatu horietan espazio ona aurkitzeko. Horrek bilakaera positiboa eragiten du eta, oro har, lurralde historikoko gizartearen etorkizuna arrakastatsua izaten laguntzen du.

Parez pare dauden jokabide globalen aurrean mikroeszenategi positiboak eta negatiboak proposatzeko jokoak, munduaren bilakaera norabide jakin batean badoa, Gipuzkoaren erantzuna baldintzatu arren, ez diola erabat zehaztarazten nabarmendu nahi du.

Gipuzkoak, azken buruan, bere etorkizuna landu ahalko du, onerako zein txarrerako, eta kanpoko elementuak erreferentzia garrantzitsuak izango dira, dagokion moduan jarduteko eta jokatzeko.



Erronka: Produkzio Sistema

Hausnarketa Taldea

- **Antonio Cancelo** (Koordinatzailea)
- **Alberto Ortueta**. AFM
- **Ana Isabel Yoldi Saralegui**. ASLE Donostia
- **Ángel Amigo**. Igeldo Produkzioa
- **Ángel Martin**. GFA-ko Ekonomia eta Turismoko Departamentua
- **Felix Iraola**. Merkataritza Ganbara
- **Fernando Villanueva**. Bankoa
- **Iñaki Ormaza**. Eroski
- **Javier Larraya**. Ikei
- **Jon Iriarte**. Caja Laboral
- **José M^a Ruiz Urtxegi**. Adegia
- **José Ramón Beloki**. GFA-ko Ekonomia eta Turismoko Dep.
- **Juan Romero**. GFA-ko Ogasun Departamentua
- **Marisa Arriola**. BIC - Miramon Digital
- **Miguel Ayerbe**. Deustuko Unibertsitatea Donostia
- **Miguel Ibañez**. GFA-ko Ekonomia eta Turismoko Dep.
- **Paco Aspiazu**. MCC
- **Patxi Leturia**. Matia Fundazioa
- **William Gisbert**. Merkataritza Ganbara
- **Xabier Ortueta**. AFM
- **Eneko Astigarraga** (G2020 Idazkaritza Teknikoa)